

Bakaikoa
Nafarroako
txapeldun



Kirolak >>10

San Martin festak hartuko ditu gaurtik asteartera **Irurtzunek**. Musika eta antzerki eskaintza zabala, artisau azoka eta beste



Sakanerria >> 6



Hondakinen bilketaz kontsulta Etxarrin

>>7

Ekintzailetzari buruzko informazio saioak heldu den astean

>>7



Euskararen erabilera eta sustatze ordenantza Altsasun

>>9

Altsasuk Garapen Agentziari atxikitzea aztertzen segiko du

>>9

Ikastetxetik euskara ikasi gabe aterako dira

>>5



Folk ametsetan musika zikloa Irurtzunen

>>13

Tricycle eta Bou Altsasun

>>13

Sakanako turismo eragileak elkartzeko deia

>>5

Pausoz pauso oroimena gal ez dadin

>>8



Hiru keinu iraganari

>>14

ZORION agurrak

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!

Argazkiak emateko lekuak: • Altsasu: Foruen Plaza 23-1 • Ordainketa, Guaixeren bulegoan edota 3035 0018 47 0181012564 kontu zenbakian ingresatuta egin daiteke.

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!



LEHALSA

Leiho-Isolatzailak • Aluminioa • P.V.C • Mistoak



Planeta urdinerako
Green Technology

Tailerra eta erakusketa
Zuntaipe auzoa 2/g (N1 zeharra), Altsasu
Telf.: 948 468 559
info@lehalsaventanas.com
www.lehalsaventanas.com



azaroak

7-13

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.net

Ioar
ZORIONAK ioar!!
Muxu haundi bat Olatz,
ama eta aitaren partez.



Idoia eta Arhane
ZORIONAK Arhane eta ama-
txo!! Espero dugu ondo pasa
izana zuen urtebetetze egu-
netan. Muxu handi bana, fa-
milia osoaren partez.



Ivan
Zure izarraren gailurre-
raino, txapel dun!!
ZORIONAK!!

Musika

Akort, Demokrazia Zero, Jarel Babel eta Shock Waves. Azaroaren 7an, ostiralean, 22:30etik aurrera Irurtzungo Larrazpi gazte elkartearen.

Maria Salgado. Azaroaren 8an, larunbatean, 19:00etan Irurtzungo kultur etxean. **Folk ametsetan.**

Ruper Ordorika. Azaroaren 9an, igandean, 19:00etan Irurtzungo kultur etxean. **Folk ametsetan.**

IV. Larrazpitek. Azaroaren 8an, larunbatean, 21:00etan Irurtzungo Larrazpi gazte elkartearen.

Banda Basotti. Azaroaren 9an, domekan, 20:00etan Altsasuko gaztetxean.

Antzerkia

Komeria antzerkia. Azaroaren 7an, ostiralean, 20:00etan Irurtzungo San Martin jubilatutako elkartearen. **La nueva compañía.**

Izu pasabidea. Larunbatean, 20:00etatik 22:00etara, Satrustegin. Iruñeko Gurutze Enparantza institutuko arte eszenikoetako ikasleak.

Clownic. %100 Tricycle. Azaroaren 8an, larunbatean, 20:00etan Altsasuko lortia kultur gunean. **Tricycle.**

Clin! Azaroaren 9an, domekan, 17:00etan Altsasuko lortia kultur gunean. **Pep Bou konpainia.**

En busca del tesoro. Azaroaren 10ean, astelehenean 18:00etan Irurtzungo kultur etxean. **Sergio de Andres eta konpainia.**

Proiektzioak

Ferietako argazki rallyko emanaldia. Azaroaren 8an, larunbatean, 19:30ean Altsasuko lortia kultur gunean. **Altsasuko Mendigoizaleak.**

Zinema

Le week-end. Azaroaren 7an, ostiralean, 21:45ean eta azaroaren 9an, domekan, 20:00etan Altsasuko lortia kultur gunean.

La isla minima. Azaroaren 7an, ostiralean, 22:00etan eta azaroaren 9an, domekan,

Basottitarren biltzarra



Igandean, 20:00etan, Altsasuko gaztetxean joko du Erromako taldeak. Banda Basotti taldea 80ko hamarkada hasieratik dabil ska eta punk doinuak egiten. Haien bidez ezkerreko ideiak zabaltzen ditu, arrazismoaren eta faxismoaren kontra eginez. Ezkertiar iraultzaileak, bandak berak sortutako kantuekin batera garai bateko iraultza himnoen edota bakarlarrien eta taldeen bertsoak jotzen dituzte. Euren engainamendu politikoak Nikaragua, El Salvador, Palestina, Irlanda edo Euskal Herriari elkartzuna adieraztea eraman ditu. Aurten Ukraniako Donbas eskualdean ere izan dira musika zabaltzen. Altsasuko gaztetxean Banditi Senza Tempo (Gridalo Forte, 2014) diskoa aurkeztuko dute.

20:10ean Altsasuko lortia kultur gunean.

Mendi irteerak

Etxauri. Azaroaren 9an, igandean, Irurtzungo Iratxo elkartearen.

Irati. Azaroaren 9an, domekan. **Altsasuko Mendigoizaleak taldea.**

Bizikleta irteerak

Ordozko sarioa. Azaroaren 9an, domekan, 9:00etan Altsasuko Zumalakarregi plazatik eta 9:50ean Bioitza kanpinean. 54 km. **Burunda klubeko mendi bizikleta taldea.**

Erakusketak

Ziza eta sendabelarren erakusketa. Azaroaren 9an, igandean, 10:00etatik 14:30era Irañetako frontoian. 12:00etan pintxo dastatzea.

Ferietako argazki rallya. Azaroaren 10etatik 23ra arte, 19:30etik 21:00etara Altsasuko Gure Etxea eraikinean. **Altsasuko Mendigoizaleak.**

Hiru keinu iraganari. Azaroaren 30era arte, astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara Altsasuko lortia kultur gunean.

Pintura detritus. Abenduaren 20ra arte Altsasuko Basoko Mari dendan.

Ziordiko liburutegiko azken 15 urteetako ekintzak. Abenduaren 29ra arte, astegunetan, 16:00etatik 20:00etara Ziordiko liburutegian.

Bestelakoak

Arakilgo haurren jolas eguna. Azaroaren 8an, larunbatean, 15:00etatik aurrera Etxarrengo Aranburu frontoian.

Ziber lehiaketa. Azaroaren 7an,

larunbatean, arratsaldean Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean.

SNEINN II programa. Informazio jardunaldia. Azaroaren 12an, asteazkenean, 11:30etik 13:00etara Altsasuko enplegu bulegoan.

Deialdiak

Hipotekek kaltetutako Plataformak. Azaroaren 7an, ostiralean, 19:00etan Altsasuko Gure Etxeko lehen solairuko 1. gelan, bilera.

Euskal Presoak Euskal Herrira! Azaroaren 7an, ostiralean, 20:00etan Lakuntzako, Arbizuko eta Etxarri Aranazko plazetan, elkarretaratzeak.

Euskal Presoak Euskal Herrira! Azaroaren 9an, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

Ostiralero SAIOA 9:30etik 10:30era
Errepikapenak 14:00etan eta 19:00etan.

beleixe ^{107.3 FM} *online*
www.guaixe.net

Piztu irratia!

ASTEBURUKO AGENDA

ASTEKO ERREPASOA:
albisteak, kirolak,
Josefina Arreguiaren Lagunak,
Iturmendiko Talo Eguna,
Irurtzungo San Martinak...

Esataria: *Maidier*



Onddo astea

Altsasu

Pintxoa: 2€

2014ko azaroak 6-7-8-9
19:00-22:00



ARKANGOA - GAUTXORI - KOXKA - LURRAZPI - URTZI - XUME

Onddo eta txahal gozokia



Arkangoa

Onddoen eta hezur hutsaren gozokia txahalaren demi glacean.

Onddo odolkia eta saltxitxa



Gautxori

Osagarria: Patata-purea errege-sagarra-ekin eta kua-marmeladarekin.

Onddo gorringoa



Koxka

Alberjina kuitxoarekin eta gulekin su bizian erre-gosia aspizun iberikoaren gainean eta onddo-orriekin arrautzaren gorringoan.

Txipiroi beganoa



Lurrazpi

Onddoak, barazkiak, algak, lekaleak, tahinia, irina eta semola.

Udazkeneko biribilkia



Urtzi

Txerri-hankaz eta onddoz betetako aza kuairekin.

Onddo gozokia



Xume

Onddoak, barazkiak eta txerri-hankak.



Xabier Reparaz Extramiana

astekoa

Debekuak debeku

Gaur duela 191 urte hil zuten Madrilgo plazako urkamendi batean Rafael del Riego izeneko gizona. Urte askoren ostean sortuko zen Errepublikako ereserkiaren sortzailea. Behin urkatuturik, nahikoa ez, eta burua moztuzioten herritarren muturren aurrean odola isuriz. 1820an Fernando VII.aren aur-

ka altxatu zen gizon hura, hiritarren askatasunaren bila. Amerikako iraultza zapaltzera zihonan armada osoa bere esku izanik, ozeanoko bi aldeetan ideia liberalen arrakasta bideratu zuen gizon hark. Alde honetan, ezpataren mehatxuaz estu eta larri jarri zuelako Borboi absolutista hura, beste aldean berriz,

hemen gelditu ziren tropek ez zutelako latinoamerikarren gogoia zapaltzerik izan.

Riegoren hiru urteko abentura liberala, ordea, atzerriko armada atzerakoi batek zapaldu zuen. Giza eskubideak, botere banaketa eta herriaren subiranotasuna aldarrikatzen zituen gizon hura gertukoenek

abandonatuta erori zen bere hiltzaileen eskuetan. Halakorik berriz inork egin ez zezan, haren memoria debekatua izan zen Espainiako erreinuan. Debekuak debeku, ordea, iraultza liberalak ezin izan ziren gelditu.

Herriaren borondatea zapaldu arren, sarri jaiotzen dira hilo-

tzaren inguruan kimu berriak. Errealitatea ikusi nahi ez duenak, hura zanpatu eta bistatik aldentzea nahi izaten du. Igan-de honetan kontsulta ezagunaren hilotzaren inguruan gertatuko denak erakutsiko duen bezala, zaila da errealitatea debekatzen saiatzea Espainiako erreinuan.

barrutik kanpora

Arduraz joka dezagun!

Urtebete eman dugu Sakanako Plan Estrategikoa definitzen. Plan Estrategiko honek hainbat onura ekarri dizkigu: i) zehaztu dugu datozen urteetan alor ezberdinetan egin beharreko lana; ii) partaideen arteko konfiantza eta elkarlana sendotu egin da; iii) definitutako 180 ekintza horiek gauzatu ahal izateko gobernantza eredu finkatu dugu, eragile-

en arteko lan eraginkorra izan dadin; eta iv) Plan Estrategiko honek inoiz egon den adostasun handiena lortu du, Sakanako Udal Batzar guztietan alderdi guztiek babestu dutelako.

2011ko Azaroan Krisi Mahaian adostutako bide orria gauzatu dugu (Sakantzen Sarea eta Sakanako Garapen Agentzia sortuz eta Plan Estrategikoa definituz).

Sakanak bere etxeko lanak egin ditu, denbora laburrean eta elkarlanean. Eta adostasun maila handitu da. Gainera, lan molde praktiboago eta kolaboratzaileagoa dugu, bai Plan Estrategikoaren motorra diren Sakanako Garapen Agentzia eta Cederna-Garalur-en artean, bai borondatez dihardugun eragile eta pertsonen artean ere. Emai-

tzak lortzen ari dira, baina ezin ahaztu epe luzerako apustua dela hau. Ulertzeko begira dezagun Goierrin Goiekiren bitartez zer eta nola lortu duten, adibidez.

Behin bideamarraturik, orain Plana garatzeko tresnak indartzeko ordua da, eta horretan Nafarroako Erakundearen inplikazioa ezinbestekoa da. Larrialdi Mahaian ere adostu zen hori.

Nafarroako Gobernuak askoz ere gehiago egin dezake, baina hori lortzeko gakoa 15 udalerrien eta eragileen arteko batasuna da. Hiru urte hauetan landutako batasuna eta elkarlana ez ditzagun zapuztu, guztion ardura da.

Sakantzen Sarea

hara zer dien

Erlaxazioa haurtzaroan

Erlaxazioa, lasaitasun edo atsedeen egoera bat da. Erlaxazio teknika ezberdinak erabilita, muskuluak lasaitu eta moteltzea lortzen da, tentsio fisikoa gutxituz. Organismoa eta muskuluak lasaitzeaz gain, egoera mentala ere lasaitzen du eta ondorio positiboak ditu maila fisiko, psikologiko eta emozionalean:

- Entzute kalitatea hobetzen du.
- Kontzentrazio, arreta eta oroitapen gaitasunak hobetzen ditu.
- Gorputzeskemaren garapene-

an laguntzen du: gorputzeskemaren ezagutza hobea eta sakonagoa lortuz.

- Norbere buruaren ezagutza sustatzen du, konfiantza areagotuz.

- Oreka egoera eta ongizatea mantentzen laguntzen du.

- Erlaxazioa ez da helburu bat bakarrik, egoteko modu bat ere bada, ikaskuntza prozesu bat da.

Erlaxazioak haurtzaroan suertatzen diren arazo ezberdinei aurre egiten lagundu gaitzake;

antsietatea sentitzean, eskolan arazoak sortzen direnean, beldurrrak daudenean, arretarako zailtasunak, loezinean...

Haurrak jaioberriak edo txikiak direnean, hainbat modu erabiltzen ditugu hauek lasaitzeko: kontaktu fisikoa, besotan kulunkak, sehaska kantak, masajeak... Masajeen artean, gaur egun ezaguna egin dena, Shantala masajea deiturikoa da. Teknika hau Indiatic dator: Tradizioz, Indiako amek erabiltzen dute beren

seme alaba jaioberriekin. Onura ugari ditu eta haurra lasaitzeaz gain, ama eta jaioberriaren arteko lotura afektiboa areagotzen du.

Haurrak handitzen doazen heinean, modu edo teknika ezberdinak erabili ditzakegu hauek erlaxatzeko. Hasiera batean, batez ere, erlaxazio jolasak erabili daitezke: arnasketa jolasak, ipuinak, motrizitate eta yogako ariketa ezberdinak, Jacobson erlaxazio teknika (gorputzeko atal ezber-

dinak tentsionatzen dira eta jarraian, tentsio hori askatzen da erlaxazioa lortu ahal izateko)...

Eta bukatzeko, irudikapen metodoa aipatu nahi dut. Haurrari, landu nahi dugun gaiaren arabera, istorio ezberdinak kontatu ahal dizkiogu, berak istorio horiek bere buruan irudikatzen baititu. Gaur egun, teknika honen inguruan liburu interesgarriak aurki ditzakegu.

Narrea Iraurgi

Guaixe  

ERREDAKZIO BURUA: Alfredo Alvaro Igoa • guaixe@guaixe.net
ERREDAKZIOA: Maider Betelu Ganboa
MAKETATZAILEA: Ainhoa Etxeberria Pikabea
PUBLIZITATEA: Maria Saez de Albeniz • publizitatea@guaixe.net
 eta Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.net
ERREDAKZIO LAGUNTZAILEAK: Maialen Huarte Arano, Larraitx

Amadoz Lazkano eta Eñaut Arribengoa Apaolaza
ZUZENTZAILEA: Patxi Flores
ARGITARATZAILEA: Bierrik Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675
KOORDINATZAILEA: Goizeder Anton Iturralde • bierrik@guaixe.net
DISEINU ZERBITZUA: Guaixe Komunikazioa • Amaia Amilibia Salgado • argi@guaixe.net
ADMINISTRAZIOA: Gixane Andueza Goikoetxea

LEGE GORDAILUA: NA-633/1995
TIRADA: 3.200

LAGUNTZAILEAK:

Mank
 s a k a n a

BAZKIDEAK 

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
 HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
 ETA KULTURA SAILA
 Hizkuntza Politikako Salburuordetza

MERKATU ZIRKUITU LABURRAK: Horietan ostalaritza eta dendetan dituen aukerak aztertzeke Cederna-Garalurrek jardunaldia antolatuko du astearterako, 10:00etatik

13:00etara, Doneztebeko Herri Ostatuan. Lehen sektoreko ekoizleei, ostalaritzako ordezkariari eta dendariari zuzenduta dago.

sakanerria >>

SAKANA

Sakanako turismo eragileak elkartzeko deia

Sakanako turismo elkarte berria abian jartzeko bilera deitu dute azaroaren 13an, ostegunean, 18:00etan Utzuganen (Arbizu)

Sakana 2020 Plan Estrategikoa zehazteko egindako hausnarketan, Sakanako turismo arloko eragileen artean ezagutza falta zegoela geratu zen agerian. Egoera zuzentzeko beharra ikusiz, etaguztion elkarlanaren bidez Sakana hobeto ezagutarazteko premia dagoela jabetuz iren aipatu hausnarketetan.

Horrela, landetxe eta alojamenduak biltzen dituen Bidelagun elkarteak turismo beste eragile batzuetara irekitzea erabaki du. Elkarte berritua abian jartzeko, Sakanako Garapen Agentziarekin batera hainbat turismo eragile-landetxe, turismo zerbitzuak, artisauak, jatetxeak...- elkarlanean aritu dira urte honetan.

Horrela, turismo elkarte berria abian jartzeko, Sakanako turismo

eragile guztiak elkartzeko bilera deitu dute ostegunean, azaroaren 13an, 18:00etan Utzuganen Sakanako Garapen Gunean, Arbizun. Bilera horretara gonbidatu dituzte Sakanako turismoarekin zerikusia duten enpresa guztiak -alajamenduak, jatetxeak, artisauak, turismo zerbitzuak...- eta interesatu guztiak. Informazio gehiago ondoko telefonoetan: 687 424 839 (Idoia Uhalde) eta 674 146 472 (Iker Manterola).



Turismo eragileak Zamartzen elkartu zireneko. ARTXIBOA

Ikastetxetik euskara mederatu gabe ateratzen segituko dute

Ikasturte honetan A ereduaren %15,1 ari dira ikasten. B ereduaren, %4. D ereduaren, euskarazkoan, %80,9; inoizko daturik onena

Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak 1997-1998 ikasturte egin bezala ikasturte berriko Sakanako ikastetxeetako matrikulazio datuak jasotzen ditu. Haietan ikusten denez, Sakanan A ereduaren (gaztelaniaz eta euskara ikasgaia) desgertze joerarik ez dago aurreko ikasturtearen pare baitago. B ereduaren (ikasgai batzuk euskaraz besteak gaztelaniaz) egonkor mantentzen da. D ereduaren, berriz, (euskaraz eta gaztelaniaz ikasgaia) %0,9 irabazi du, ikasturteaz ikasturte apurka goranzko bidea duelako. Mankomunitateko 17 urteetan jasotako inoizko daturik onena lortu du D ereduaren kopuru erlatiboetan. Hezkuntza eta soziolinguistikako adituek behin baino gehiagotan nabarmendu dute A eta B ereduak ez dutela euskara ikastea bermatzen.

Zikloka

Ikasturte berriaren Haur Hezkuntzan 696 ume daude izena emanda, aurrekoan baino 21 gutxiago. Hezkuntza ereduak dagokien 5 ikasle berrietatik 4k D ereduaren ekin diote ikas-



Ikasleak motxilekin ikastetxerako bidean. ARTXIBOA

ketei (%84,7; 585 ikasle, %0,5 eta 2 ikasle gehiago). Aurreko bi ikasturteetako beherako joera etenda. Gai nontzeko hezkuntza ereduak dagokien, Haur Hezkuntzan A ereduaren ikasle bat eta %0,1 irabazi du (69 eta %9,9), baina aurreko urtean bezala %10etik behera geldituz. Behera egin du B ereduaren ere, 4 ikasle gutxiago eta %0,6 behera eginez (41 eta %5,9).

Lehen Hezkuntzan (LH) zazpigarren urte gora egin du D ereduaren ikasle ari diren ikasle kopurua, %80,9ra iritsiz (%0,9 eta

30 ikasle gehiago). Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan (DBH) hamargarren ikasturte gora egin du D ereduaren ikasle kopurua

%77,9ra iritsiz (%1,3 gehiago, 11 ikasle gutxiago).

A ereduaren LHn inoizko maila txikiena du, %13,9 (%1,1 eta 11 ikas-

Guztira

Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak bildutako matrikulazio datuen arabera ibarrean 2.725 ikasle daude hiru hezkuntza zikloetan (Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza), aurreko ikasturte baino 25 gutxiago. Ikasleak %80,77, 2.201, D ereduaren ikasle du (ikasle 1 eta %0,77 gehiago).

le gutxiago). B ereduaren, berriz, gora egin du LHn (%0,2 eta 4 ikasle gehiago), maila horretako ikaslearen %5,2 hartuz. DBHri dagokionez, A ereduaren 1,3 egin du behera %22,1ean kokatuz (16 ikasle gutxiago, 161 guztira).

Bestalde, Batxilergoan 137 ikasle ari dira. Haietatik 109 D ereduaren (%76,7) eta 38 A ereduaren (%23,3). Lanbide Heziketan dauden 110 ikasleak gaztelania hutsean ikasten ari dira (G ereduaren).

Ikasturtea	Haur Hezkuntza			Lehen Hezkuntza			DBH									
	A	B	D	A	B	D	A	D								
	%	%	%	%	%	%	%	%								
97/98	126	24,1	-	396	75,9	365	32,5	-	758	67,5	168	35,8	301	64,2		
01/02	111	20,9	-	420	79,1	320	28,8	-	792	71,2	262	38,7	419	61,3		
05/06	97	18,2	-	437	81,8	278	24,7	-	876	75,9	235	34	456	66		
06/07	98	17,5	16	2,9	445	79,6	272	23,3	14	1,2	883	75,5	216	32	460	68
11/12	79	11,7	29	4,3	568	84	200	15,8	89	7	974	77,1	176	24,5	542	75,5
12/13	85	11,6	34	4,6	616	83,8	201	15,9	67	5,3	995	78,8	178	24,2	557	78,5
13/14	68	9,8	45	6,5	583	83,7	195	15	65	5	1.039	80	177	23,4	578	76,6
14/15	69	9,9	41	5,9	585	84,2	184	13,9	69	5,2	1.069	80,9	161	22,1	567	77,9

Asteazkenara arte Errigorako saskiak eskatzeko aukera

Erriberako ekoizleen produktuz osatutako saski bat 50 eurotan erosi eta, horrekin, gainera Nafarroa hegoaldeko euskalgintza lagundu. Asmo hori du Errigoraren ekimenak sustatu duen *Nafarroa hegoaldeko uzta, euskarari puska* kanpainak. Errigoraren elikagai zareak azaroaren 12ra arte eskatu daitezke. Sakanan 19 tokitan.

+ www.guaixe.net

FRONTOIKO TABERNA

948 469 138
ERKUDEN 4 · ALTSASU

GANUZA SUKALDEAK
Sukalderako altzariak

Bainu gelako altzariak
Horma armairuak
Etxetresna elektrikoak

Tel: 948 460 203 Fax: 948 460 673
c.ganuzas@cocinasganuzas.com
www.cocinasganuzas.com
Etxarriko industrialdea
ETXARRI ARANATZ

nerea cenoz
nutrición

Giza Elikadura eta Dietetikan Diplomatuak (Nafarroako Unibersitatea)

info@nereacnoz.com
nereacnoz.com

Informazio gehiago 654 910 289 telefonoan

Estafeta 16, atzea · Lakuntza
(Bostekoa masaje zentroan)

Pisua kontrolatzeko dietak:

- Argaltzeko dietak
- Pisua hartzeko dietak
- Mantenimendu dietak
- Haurdunaldi dietak

Patologia ezberdinetarako dietak

Kirol-elikadura
Elikadura arazoak
Nutrizio-hezkuntza

» Irurtzun

San Martin festetarako egitarau zabala

Udazkeneko festak gaur hasi eta asteartera bitarte luzatuko dira Irurtzunen, hain zuzen sailduari eskainitako egunean despedi-

tzeko. Adin eta gustu guztietarako musika eta antzerki eskaintzarekin batera, 25 artisau elkartuko dituen azoka, tarta eta gozo-

gintza lehiaketak edota erraldoi eta buruhandien urteko azken irteera iragarria daude festetarako.



Aurreko urteetan frontotia hartu izan du igandeko artisau azoka. ARTXIBOA

Artisauak

Ehoziri taldea (ehoziriak, Irurtzun), Fina eta Francisco (espartua, Irurtzun), Sanau (Senegalgo artisautza, Irurtzun-Senegal), Boutzakht Saffa (Marokoko artisautza, koadroak, loreak, Irurtzun-Maroko), Maria Esparza (bitxigintza, Izurdiaga), Daniel Flores (umeendako osagarriak, Irurtzun), Jose Antonio Rekal-

de (egur taila, Irurtzun), Saralegi-Nagore (taloak, Irurtzun), Amalur (artisau hezkuntza materiala, Arakil-Irurtzun), Mikel Lasarte (motozerraz eginiko eskultura, Irurtzun), Felix Barbero (zahatoak eta narruak, Errioxa), Marino (eztia eta garrapiñatuak, Iruña), Galburu (ogia, Lekunberri), Juan Carlos Esain (landare eta loreak, Tafalla), Zapatari (oinetakoak, Eraso), Joseba Jokin Ordo-

ki (ukenduak, Lekunberri), Artzeluze (egur taila, Lekunberri), Mañeko (gozogintza, Mallabia), Maria Hernandez (zumea, Ibero), El hadablanca (mineral-bitxigintza, Rasal-Hueska), Lizardi (harri lanak, Arbizu), Geshia (euskal panpinak, Donostia), Luisa Ortiz (bustingintza tailer didaktikoa, Ihabar), Repi (Iarua, Arizkun), Albi gazta (gazta, Arruazu) eta Ametsen tailerra (kilikiak, Zizur).

Egitaraua

» Azaroak 7, ostirala
20:00etan Antzerkia, jubilatutako elkartean
22:30ean Rock kontzertuak, Larrazpi gazte elkartean.

» Azaroak 8, larunbata
11:00etatik 13:00etara Jostailuen trukaketa eta haurrendako jolasak.
19:00etan Maria Sagadoren kontzertua, kultur etxean.
21:00etan Larrazpitek, Larrazpi gazte elkartean.

» Azaroak 9, igandea
10:30etik 14:30era Artisau azoka.
17:30etan Sakanako harrijasotze eskolaren erakustaldia, plazan.
18:00etan Gozogintza txapelketa eta dastatzea. Erga Larreak elkartea.
19:00etan Ruper Ordorikaren kontzertua, kultur etxean.

» Azaroak 10, astelehena
18:00etan En busca del tesoro, haurrendako antzerkia kultur etxean.

» Azaroak 11, asteartea
10:00etan Dianak, Irurtzungo gaita tailerra.
11:30ean Erraldoi eta buruhandien konpartsa.
12:00etan Meza.
14:00etan Adinduen bazkaria.
16:30ean Mus txapelketa Iratxo elkartean, 16:00etaraino izen ematea.
17:00etatik 20:00etara Dantzaldia Rubi Berriak taldearekin.
18:00etan Haurrendako txokolata jatea.
20:00etan Zezensuzkoa.

» Iturmendi



Taloak egin eta egin.

Udazken festa talo artean

Larraitz Amadoz Lazkano

Aurtengo udazken festak talo, txistorra eta txokolate usaina izan zuten. Eguerdiko 12etatik aurrera herritar ugari gerturatu ziren frontoira, musika eta talo artean giro bikainaz gozatzeko asmoz. Talogileek lana goizean goiz hasi zuten arto opilak eguerdi aldera prest uzteko. Horrela, eguerdiko 14:00ak bitarte aritu ziren taloak banatzen herriko frontoian euria dela eta. Dena dela, taloakeskatzeko ilara hazitzen joan zen denbora pasa ahala. Horretaz gain, gerturatu ziren sakandarrek hainbat jaki zozketatzen zituen saskia lortzeko aukera izan zuten.

» Irañeta

Zizen eta sendabelarren frontoia

Igandean, 10:00etatik 14:30era Irañetako frontoian ikusgai izanen dira. Gainera, eguerdian ziza pintxoaren dastatzea izanen da

Bi urtean behingo hitzorduari huts egitekotan egon da kasik aurtentzen Irañetako zizen eta sendabelarren erakusketa. Lastaila lehorretik joan da eta ziza gutxi ateratu dira. Aste honetako euriak zerbait mugituko zuen esperantzaz, Irañetako Euskara Kultur Taldeak erakusketari eustea erabaki du. Igande goizean eta eguerdian, beraz, herriko frontoian zizak eta

sendabelarrak ikusteko aukera izanen da. Gainera, haiek dastatzeko aukera ere izanen dute hara bertaratzen direnek.

Irañetako Euskara Kultur Taldeak dei egin diete erakusketaren antolaketa parte hartu nahi duten guztiei. Bihar 9:00etan Txapel Azpi elkartean biltzeko deia egin dute. Handik zizak jasotzera joanen dira. Haiek hartu ondoren, 17:00etan, udaletxean sailkatu egingen dituzte. Laguntza guztia ongi etorria izanen da.



Etzi zizak eta belarrak ezagutzeko aukera aparta dugu Irañetan. ARTXIBOA

» Arakil

Arakilgo haurren jolas eguna Etxarrenen

Larunbatean, 15:00etatik aurrera, Etxarrengo Aranburu pilotalekuan

Arakilgo Udalak makina bat ekitaldi antolatu ditu 2014ko Udazkeneko Kultur Agendaren barruan. Eta, jakina, ezin etxeko txikienak ahaztu. Arakilgo neska-mutikoei eta euren laguntxo guztiei ongi pasatzeko haurren jolas eguna antolatu du larunbat arratsalderako Arakilgo Udalak, Edurne Unanuaren eta Izaskun Mujikaren eta Amalur eta Itxipuru taldeen laguntzarekin.

Etxarrengo Aranburu pilotalekua izango da bilgunea, 15:00etatik aurrera. Bertan, haurrendako makina bat ekitaldi antolatu

dituzte: puzgarriak, energia berriztagarrien tailerra, astojokoa, musika, zentzumenen tailerra, txokolata eta ipuinak. Antolatzailerek bertara hurbiltzeko gonbitea egin diete haur eta guraso guztiei.

Egitaraua

15:00etan Puzgarriak.
15:00etan Energia Berriztagarrien Tailerra (8 urtetik gora). Itxipuru.
16:00etan Joko dinamikoak (adin guztiak). Edurne Unanua.
17:00etan Zentzumenen zirkuitu tailerra (3-8 urte). Amalur.
18:30ean Txokolata jana.
19:00etan Izaskun Mugika ipuin kontalaria.

» Irurtzun

Jostailuak truka ditzagun

Larunbatean, 11:00etatik 14:00etara, jostailuen trukaketa azoka antolatu dute Irurtzungo plazako arkupeetan

Atakondoako Guraso Elkartean, Itxipuru, Irurtzun aldeko Gizarte Zerbitzuak eta Sakanako Immigrazio Zerbitzuak, Atakondoako eskolaren laguntzarekin, erabilitako jostailuen trukaketa azoka antolatu dute larunbatean, 11:00etatik 14:00etara Irurtzungo plazako arkupeetan.

Jostailuen azokan parte hartuko dutenek egoera onean dauden jostailuak eraman dituzte aste honetan Atakondoako eskolako sarrerara. Gaur, ostirala, izan dute azkeneko eguna. Eskolan euren jostailuak uztearekin batera txartel bat jaso dute trukean. Txartel hau biharko azokara eraman



Haurrak jostailuak uzten. UTZITAKOIA

behar dute, eta bertan dagoen jostailu batengatik aldatzeko aukera izango dute. Jakina, aste honetan guztian eskolan jaso dituzten jostailuak azokan jarriko dira, trukagai. Haurrek denetatik aurkituko dute azokan: pelutxeak, panpinak eta talo guztietako jostailuak.

» SAKANA



Nafarroa Oinezek "Benignoren taldea" omendu du

Iñigo Aritza ikastolako guraso taldeak 10 urte daramatza Nafarroa Oinezeko paella erraldoia prestatzen

"Urdiaingopaelleroak" ziren hasieran. Haiei Olaztikoak gehitu zitzaizkien. Eta Sakanako beste herri batzuetako lagunak ere bai. Gehienek, hala ere, "Benignoren taldea" moduan ezagutzen dituzte. Izan ere, Benigno Mendia da Sakanako eta Sakanatik kanpoko hainbat txokotan egiten diren bazkari eta afarien arimetakobat. Hori bai, makina bat laguntzaile fidelen laguntza duela. Tartean, talde honek, Iñigo Aritza ikastolako guraso talde moduan, 10 urte egin ditu Nafarroa Oinez egunerako paella goxo-goxoa prestatzen, Iñigo Aritzak bere azken jaia hartu zuenetik, 2005 urtetik. Sakanako beste eragile batzuen laguntzarekin, tartean Olaztiko Gazte Asanblada, Oinez egunerako paella prestatu dute Altsasun, Beran, Vianan, Etxarri Aranatzen, Atarrabian, Tafallan, Zizurren, Tuteran eta Zangozan. Eta aurtengo Nafarroa Oinez egunerako omendaldi beroa jaso zuten Zangozako ikastolaren eta Nafarroako Ikastolen Elkartearen partetik. +www.guaixe.net

» Etxarri Aranatz

Hondakin bilketa sistemari buruzko iritzi bilketa

Udaleko Hondakin Batzordeak hondakinei buruz etxarriarrek duten iritzia hilaren 13tik 30era jaso nahi du

Dagoneko 16 hilabete pasatu dira Sakanako Mankomunitateak hondakinak biltzeko sistema berria martxan jarri zuela. Hondakinaren Batzordearen proposamenez, Etxarriko Udalak konpromisoa hartu zuen behin sistema probatuta etxarriarrei kontsulta egiteko. Beraz, euren esperientziatik abiatuta, etxarriarrek sistema berriaz zer iritzi duten eta hondakinaren bilketa hobetzeko zer proposamen dituzten jakiteko egingen du kontsulta udalak.

Galdeketa egiteko Etxarri Aranatzko Udala enpresa espezializatu batekin harremanetan jarri da. Hark egin du galdeketa, Nafarroako Estatistika Institutuaren aholkularitzarekin. Mank-ek prozesurako bere lankidetzaren eman du. Izan ere, galdeketa despeditu ondoren, Etxarri jasotako emaitzak ibarreko erakundeari jakinaraziko zaizkio. Baita etxarriarrei ere, herri batzar batean.

Hondakin Batzordeak etxarriar guztiei kontsulta parte har dezaten dei egin die. Azaldu dutenez, "hondakinaren sistema aldatzeko etxarriar guztion inplikazioa eskatu du, eta orain da aukera herritar bakoitzak sistemaz zer iritzi duen esateko". Denen parte hartzea "oso inportantetzat" jo dute; "kontsultaren emaitzak kontuan hartuko delako etorkizuneko hondakinaren



Hondakinaren Batzordeko kideek proposatu zuten kontsulta. UTZITAKOIA

gestioa hobetzeko erabakietan". Azaldu dutenez, "emaitza oso aberatsa izanen da, kontsulta honetan eguneroko etxeko praktikatik abiatutako balorazio eta iritziak jasoko direlako". Batzordea udaleko ordezkariak (Joxi Bakaikoa, alkatea, Eneka Maiz, Bildu, eta Arantxa Artieda, Na Bai, zinegotziak) eta herritarrek (Idoia Artieda, Pedro Artieda, Aiert Lizarraga eta Jon Garziandia) osatzen dute.

Oharrak

Etxarri erroldatuta dauden 18 urteko edo zaharragoko etxarriar guztiek galde-sorta bati erantzun ahal izanen diote. Galdetegiak lortzeko eta erantzuteko bi aukera

daude. Bata, udalaren web orria da: www.etxarriaranatz.com. Nortasun agiria idatzi ondoren hasi daiteke erantzunak ematen. Bestea, erantzunak paperean ematea da. Paperezko galdetegiak udaletxean (10:00etatik 14:00etara) eta liburategian (16:30etik 20:30era) jaso daiteke.

Etxarriar bakoitzak galdetegi bakarra bete dezake, horregatik eskatzen da nortasun agiri zenbakia. Udaletik jakinarazi dutenez, erantzunak anonimoak izanen dira, Datuen Babeserako Legea estuki beteko da. Hala ere, beste norbaiten galde-sorta ere entregatu daiteke, baina betiere haren nortasun agiria erakutsita. Mugikortasun

%56 gehiago

Etxarri hondakinak gaika %24ko jasotzetik %80 ingurura pasatu dira.

arazoak dituztenek, hala eskatuz gero, udaletxera hots egin (948 460 004) dezakete eta galdetegi etxean jasoko zaie. Azaroaren 20a baino lehen egin beharko dute eskaera.

Bestelako eskaera

PPk Etxarri Aranatz duen zinegotzi Juan Antonio Extremerak galdetegi babestu du, "baina sistema berria indarrean jarri aurretik egin behar zen". Popularrak

Galdetegiak

Etxarriarrei egindako kontsultak bost atal eta 17 galdera ditu, bakoitzari erantzuteko lau aukera ematen dira. Lehen atala, orain arteko norberaren esperientzia baloratzeko da eta, horregatik, galdera gehien dituen atala da, bederatzi. Nola moldatzen diren, etxeko antolaketa, ordutegiak, konpostagailuek, maiztasunak, larrialdi guneak, garbiguneak eta pertzeak galdetzen zaie.

Bigarren atalaren bidez (hiru galdera), hondakinekiko kezka, kudeaketa sistemaz eta tasen konpentsazioaz galdetuko da. Hirugarren atala (galdera bakarra), jasotako informazioaren ingurukoa da. Laugarrenean (bi galdera), berriz, lortutako emaitzen inguruko iritzia eskatzen da, baita probatu ondoren sistema berriari buruzko ideia aldatu ote zaien ere. Azken atalean (bi galdera), aurrera begira jartzea eskatzen da, sistema berriari buruzko iritzia emanez eta proposamen eta iradokizunak eskatuz.

ere galdera bakarreko galdeketa egitea eskatu du: "atez atekoaren alde edo kontra zaude? Gainontzekoa botatu nahi duten herritarrek nahastea eta asmoa kentzea besterik ez da". Altsasun galdeketa bera egitea ere eskatu du.

SAKANA



Gobernua salatuta ikur frankistak ez kentzeagatik

EHBilduko 26 alkatek Nafarroako Gobernua salatuko dute. Haietako hainbatek agerraldia egin zuten Iruñean, tartean Uharte Arakilgoak, Etxarri Aranatzkoak eta Arbizukoak. Azken horrek, Miren Mendinuetak azaldu zuen Nafarroako Jauregiko fatxadan Franco diktadoreak 1936ko estatu kolpearen ondoren Nafarroari eskainitako laureada, gurutze ere inozoduna, dagoela. Mendinuetak gaineratu zuenez, "hori kentzeko hainbat ekimen aurkeztu eta onartu dira, baina UPNk ez ditu aintzathartu. Jokaera hori beraien benetako izaeraren adierazle garbia da". EHBilduko alkateek salatu zuten frankismoko ikurrekin ez bezala zenbait ikurren kontrako sorgin ehiza areagotu dela. "Ikur frankisten kontrako inolako ekimenik gauzatzen ez den bitartean ikurrina jartzearen kontrako mehatxuak eta indarra erabiltzen dira".

SAKANA

Ekintzailetasunaren esperientzia bizi nahi?



SNEINN programako aurreneko edizioko kideen lan bilera bat. ARTXIBOIA

Heldu den asteazken eta ostiralean SNEINN programari buruzko informazio saioak egingen dira

SNEINN programaren bidez esperientzia berritzaile batean parte hartzeko gonbitea luzatu diete Sakanako langabetuei. Ekintzailetza beste aukera bat dela ikusarazteko sentsibilizazio eta kontzientzia hartzea lantzen dira Finlandiako metodologia batekin, eginez ikasiz hain zuzen ere. Jarrera pro-aktibo baterako aldaketa sustatzea, azken batean. Dagoeneko 500 ekintzailetik gorako komunitatea osatuta

dago. Programaren bidez bilatzen den beste helburua ekonomikoki errentagarriak eta iraunkorrak diren proiektuak sortzea da.

Pasa den urtean 15 sakandarrek parte hartu zuten programan Batuta taldea sortuz. Haietatik bi bizpahiru proiektu garatzen ari dira, Sakanan bertan euren egitasmoa gauzatu asmoz. Batutako kideek euren esperientziaren berri eman zuten herenegun Altsasuko enplegu bulegoan eta asteazkenean gauza bera egingen dute, 11:30etik 13:00etara. SNEINN programa

gauzatzeko 15 eta 20 pertsona artean lortu nahi dira.

Abendua bitartean ariko dira horretan. Ondoren, programa hasi aurretik, abenduan zehar hainbat aktibitate ezberdin antolatuko dira. Batik bat, metodologietara lehen sarrera eginez. Bigarren fasea, ilbeltzetik aurrera, lau hilabeteko programan zentratuko da. Bertan, taldea eratu eta programaren helburuak lortzen saiatuko dira. Pertsona bakoitzaren ueña izanen da, taldean lan eginez eta "eginez ikasi" metodologiaren bitartez, ideiak

Egutegia

» Azaroak 14, ostirala
10:00etatik 11:30era eta 11:30etik 13:00etara SNEINN II programaren j informazio jardunaldia.

» Azaroak 21, ostirala
10:00etatik 11:30era eta 11:30etik 13:00etara Jardunaldi praktikoa.

» Azaroak 28, ostirala
10:00etatik 11:30era eta 11:30etik 13:00etara Talde ariketak.

Informazio gehiagorako

sneinnsakana@gmail.com eta 685 75 90 56 (Jon).

hartu eta ekonomikoki errentagarriak eta iraunkorrak diren proiektuetan bihurtuz.

Sakana 2020 Plan Estrategikoan lantzen diren akzioen ildo berean kokatzen da programa. Bestalde, eskualdeko agente sozio-ekonomiko ezberdinen babes eta inplikazioa dute. Hala nola, Sakantzen Sarea, Sakanako Garapen Agentzia, Cederna Garalur, Bierrik Fundazioa, Sakanako Merkatarien Elkarteak, Altsasuko LH. zentroa, Abian Plataforma, Langabetuen Asanblada, Sakanako Enpresarien Elkarteak, ANEL, eta abar.

SAKANA

Pausoz-pauso oroimena gal ez dadin

Igandean Josefina Arregi klinikako lagunen elkarteak hirugarren urteurrena ospatu zuen. Ohorezko bi bazkide izendatu zituzten, Vicente Madoz mediku psikiatra eta Guillermo Nagore kazetaria

Larraitz Amadoz

Josefina Arregi klinikaren lagunen elkarteak argi eta garbi dauka helburua, aurrera egiteko asmoa bultzatzen ari dira egitasmo honen sorreratik. Ospakizun honetan burututakoekintzek klinikarekiko elkartasuna islatu zuten. Elkarte-kide Genaro Paniaguak azaldu zuen moduan, elkartasun egun bat ospatu zuten klinikari babes emateko, eta bide batez, Alzheimerren eremuan lan egiten duten bi pertsona omendu nahi izan zituzten euren laguntza eskertzeko. “Bate-tik Vicente Madoz, Nafarroan gaitoxotasun hauetan erreferentzia den medikupsikiatra, eta bestetik, Guillermo Nagore kazetaria, honek ibilaldi bat egin zuen Finisterre eta Jerusalem artean estatu mailan legearen aldaketa aldarrikatzeko”.

Paniaguak adierazi zuen “gai honen inguruan edozein gauza sortzen delarik, hor egoten diren pertsona batzuk dira eta horregatik erabaki dugu ohorezko bazkide egitea”. Elkartetik erreferentzia gisa ikusten dute bi omenduen lana, eta sinbolikoki ere hainbat eta hainbat pertsona eta boluntarioek ematen duten laguntza eskertu nahi izan zuten.

Elkarteak aurten hiru urte bete ditu eta dagoeneko 410 kide dauz-

ka. Hala ere, Josefina Arregiren proiektua 1995ean hasizen. “Josefina Arregi klinika gaur egun zuhaitz sendo bihurtu da” aipatu zuen Ines Frances Nafarroako geriatría eta gerontologia elkarte-kide presidentea. “Hasiera bateko proiektu txikiak geroz eta indar handiagoa hartu du, urtez urte handitu egin da klinika eta geroz eta babes handiagoa dauka”.

Omenduak

Ines Francesi egokitu zitzaion Vicente Madoz ohorezko bazkidearen aurkezpena egitea. Horrela, Klinikaren hastapenetan Madozek egindako esfortzuaren berri eman zuen, Felipe Lecea altsasuarrarekin batera proiektuaren sortzaileak izan baitziren 1995ean. Horretaz gain, Madozek Nafarroa osoan gaixotasun mentalen arloan egin duen lana nabarmendu nahi izan zuen Francesek eta, bereziki, klinikarekin izan duen inplikazio zuzena goraiatu zuen.

Umiltasun handiarekin hartu zuen ohorezko bazkide-tza Madozek eszenatoki gainean. “Klinikak ematen duen maitasunak harritu egin ninduen lehenengo momentutik” adierazi zuen medikupsikiatrak. Madozek bere burua klinikarekiko maitale bezala sentitu du, asko jaso duelako hanean egon den neurrian, eta aldi berean, eskerrak eman zizkien proiektu horretan lanean aritzen diren guztiei. Vicente Madozek



Elkarteko kideez inguratuta, Nagorek eta Madozek oroigarria jaso zuten.

honetan bukatu zuen, “maitasuna da familia eta gaixoei eman diezaiekegun gauzarik onena, eta hori ez dugu galdu behar, klinikaren izaeraren berezitasun garrantzitsuena delako”.

Kepa Aulestiari (Espainiako Alzheimerren duten familia eta pertsonen konfederazioko presidentea) egokitu zitzaion ohorezko bazkide Guillermo Nagoreren aurkezpena. “Ez dugu tristezia edota erririk nahi, konpromisoa eta konplizitatea eskatzen dugu” adierazi zuen Aulestiak. “65 urtetik gorako % 27 Alzheimerreko edukitze-ko hautagaiak dira eta 85 urte baino gehiago dituzten kasuan



Makina bat sakandar erakarri zuen elkartearen urteurren ekitaldiak.

%50a” aipatu zuen. Guillermo Nagoreren elkartasuna eta lana goraiatu zituen batez ere Finisterre eta Jerusalem artean egindako ibilbideagatik. Nagorek Altsasu herriaren elkartasuna nabarmendu nahi izan zuen, “7.000

biztanleko herri batek Alzheimerri aurre egiten dion 400 kideko elkarte dauka”. “Alzheimerre aztertu beharra dago, inbertsio gisa ikusi behar dugu etorkizun-aren arazo larriago batekin ez dadin” adierazi zuen Nagorek.

Auzi politikoekin bukatzeko mobilizazioa deitu dute

Salinas aske



Segiko kide izateagatik auzipetuta dauden 28 gazteetako bost Loiolako aske gunean epaiketa salatu eta ez ziren Espainiako Auzitegi Nazionalera joan. Haien artean zen Imanol Salinas olaztiarra. Epaiak haiek atxilotzeko agindua eman zuen irailaren 22an. Ihes egiteko arriskua argudiatu zuen haiek espetxeratzeko. Arrisku hori pasa delakoan ostiralean bost gazteak askatzeko agindua eman zuen epaiak. Bestalde, Salinas bera eta makina bat olaztiarrek larunbateko manifestazioan parte hartzera deitu dute.

Larunbatean, 17:30ean, Iruñeko Anttoniuttitik abiatuta. Halako nazietan auzipetuta dauden 40 nafarretatik 6 sakandarrak dira, eta beste bik epaia errekurrituta dute

Iruñeko herri harresiak deitu du larunbateko mobilizazioa, Libre dinamikaren barruan eta *Laranjaz blaitu* lelopean. Mobilizazioarekin salatu nahi dute “gaur egun politikak egiteagatik jendea jazarri, epai-

tu, kondenatu eta espetxeratuta da Nafarroan”. Auzipetuei Segi, Herri-ara, Batasuna, Askapena eta Ekinen kide izatea leporatzen zaie. Mobilizazioarako deialdia egiterakoan haietako batzuk adierazi zuten, “militante politikokoak gara, ekintzaile sozialak. Herri mugimenduan edo ezker abertzalean aritu gara publikoki eta gure konpromiso hori gar-

tzelarekin zigortu nahi dute, gu bidetik kendu asmoz”.

Larunbaterako deialdia egin zutenek adierazi zuten ez dutela inolako espetxeratze agindurik onartuko beren militantzia politikogatik. Epaiketa politikokoak bukatzeko herri eta auzoetan antolatze deia egin zuten ere.

Osorik: www.guaixe.net

Auzipetu sakandarrak

Askapena erakunde internazionalistan militatzea leporatuta Aritz Ganboa arbuzarra dago prozesatuta. Segiko kide izatea leporatuta gaur egun Espainiako Auzitegi Nazionalen Imanol Aina Larrañaga eta Salinas olaztiarra epaitzen ari dira. Ekineko kide izateagatik auzipetuak eta epaiketaren zain daude Joxe Aldasoro eta Patxi Arratibel etxarriarrak. Herri mugimenduen auzian Fran Balda arbuzarra dago. Azkenik, Herriko Tabernen auzian zigorra jaso eta Espainiako Auzitegi Gorenean helegitea aurkeztu dute Jaione Intxaurre arbuzarrak (15 hilabeteko espetxe zigorra) eta Juan Kruz Aldasoro etxarriarrak (3 urteko espetxe zigorra).

Horretaz aparte, kartelak jartzeagatik, web orriak edo sare sozialetako profilak kudeatzeagatik, presoen aldeko ekitaldietan parte hartzeagatik... terrorismoari gorazarre egiteagatik hainbat sakandar auzipetuta daude. Beste hainbatek protesta ekimenetan parte hartzeagatik isunak jaso dituzte.

Irurtzun



Pisuko suteak ez zuten kalte pertsonalik sortu

Keak toxikatuta Nafarroako Ospitale Gunea eraman zituzten ama-emeak. Gainontzeko auzokideak, 20 bat, bi orduz egon ziren etxetik kanpo

Larunbatean, 6:33an, sua piztu zen Behetiko Erreka kaleko lehen zenbakiko 2. solairuko pisu batean. Antza egongelan piztu zen sua eta han kalte handiak eragin zituen; pisuko gainontzeko gelak keak belztuta gelditu ziren. Etxeko semeak bere kabuz ateratzea lortu zuen. Amak balkoian bilatu zuen babesa eta bi auzokidek lortu zuten handik ateratzea.



Sexu indarkeriaren kontrako bilkura

Atzo iluntzean Altsasuko udaletxe aurrean elkarretaratzea egin zen. Astelehenean bortizkeria zantzuekin eraildako emakume baten gorpua opatu zuten Gasteizen. Emakumeen Mundu Martxatik mobilizatzeraz deitu zuten: “emakumeon aurkako indarkeria adierazpenik larriena dela deritzogu, baina, indarkeria sexistak mila aurpegi, ahots eta adierazteko forma ditu eta ezinbestekoa da erasoan aurrean salatzzea, eta gogor erantzutea”.



Udala emakumeenganako indarkeriaren aurka

Azaroaren 25 emakumeenganako indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna dela eta, Altsasuko Udala adierazpena onartu du aho batez. Udala adierazpenean gaitzetsi egin du ageriko eta ezkutuko sexu indarkeria. Aldi berean, udalak gizon-emakumeen arteko ezberdintasunei eta desorekei modu eraginkorrean aurre egiten jarraitzeko konpromisoa hartu zuen. Aldi berean, elkartasuna adierazi zien udalak erasoak pairatu duten emakumei eta eraildako emakumei. Azkenik, Altsasuko Udala herritar guztiak gonbidatu ditu sexu indarkeriari gaitzespena adieraztera, emakumeekiko indarkeria errotik kentzeko konpromisoa hartzera eta emakumeen kontrako indarkeria salatzeraz.



Udalak euskararen erabilera eta sustapena arautzen duen ordenantza onartu du

Euskarak eta gaztelaniak berdintasun soziala izan dezaten, euskararen urteetako bazterketa gainditzeko, Altsasuko Udala tratamendu berezia eta lehentasuna emanen dio euskarari

Altsasuko Udalaren eskumeneko esparru guztietan euskararen erabilera eta sustapena arautzeko asmoz aurreko asteazkenean ordenantza onartu zen. Helburu hori lortzeko udalak altsasuarrei helaraziko die euskara integrazio eta komunikazio elementua dela. Aldi berean, ordenantzaren bidez bermatu nahi da altsasuarrek erabili nahi duten hizkuntza ofiziale-

an kasu eginen zaiela. Horretarako araudiak euskarak idatzita eta mintzatuta duen erabilera zehazten da. Ordenantzaren asmoekin bat egiten duten euskara sustatzeko bestelako jarduerak bultzatuko ditu udalak. Alderdi guztiek alde bozkatu zuten, abstenitu ziren PSN eta PP izan ezik.

Herritarrei euskarazko zerbitzua bermatzeko hizkuntza dakiten udal langileek lehen hitza euskaraz egin beharko dute. Euskaraz ez dakitenek langile elebidun bat bilatu beharko dute. Inprimakiak elebitan argitaratuko ditu

udalak, euskarari lehentasuna emanaz. Eta komunikazioa ere bi hizkuntzetan egingen da. Bakarrenean udalarekin euskarazko harremanak nahi baditu eta hala adierazten badu, hala izanen da. Horretarako, udalak euskaldunen errolda osatuko du. Hartan altsasuarrek borondatez eman dezakete izena.

Lan hizkuntzari dagokionez, udaleko aktak bilera izan den hizkuntzan jasoko dira, baina erabakiak euskaraz ere jasoko dira. Ordenantzak ez du zehazten lanpostu bakoitzaren hizkun-

tza profila zein izanen den, hori plantilla organikoan zehaztuko du Altsasuko Udala. Hala ere, udalaren eta haren mendeko erakundeetan langileek euskaraz lan egin eta zerbitzua hizkuntza horretan emateko plangintzak egokituko dituzte.

Ordenantzan ere informatika tresna eta aplikazioak, kanpo irudia, komunikazioa, argitalpenak, Internet, diru-laguntzak emateko baldintzak, kontratazioak, toponimia, hizkuntzaren sustapena eta ekitaldi publikoen nondik norakak zehazten dira.



Bilkurako bozketa bat. Bestalde, Claudio Salvador hautetsi sozialista hil berria gogoan izan zuten bilkura hasieran zinegotziek, minutu bateko isilunea gorde zuten.



Udalak Garapen Agentziari atxikitzeke erabakia aztertzen segituko du

Asteazkeneko udal bilkuran puntua erretiratu egin zuen Bilduk beharrezko adostasuna lortzeko

Aurki udaleko Ekonomia Sustapen Batzordea eta Garapen Agentziako administrazio kontseilua bilduko dira kontrol eta jarraipen bitartekoak zehazteko

Sakanako Mankomunitateak Sakanako Garapen Agentzia erakunde publikoa sortu du ibarreko ekonomia garapena sustatu asmoz. Mank-ek eraturako erakunde publikoari atxikitzea aztertu behar zuen pasa den asteazkenean Altsasuko Udala, baina aukera hori bertan behera gelditu zen, gutxienezko adostasunik ez egotean. Mank-ek sortutako egitura berriak Altsasuren aurrekontuan urtez urte izan dezakeen eragina eta kontrol bitartekoak aztertuko dituzte udalean, baita SGAn ere.

Hasier Gonzalezek (Bildu) bilkuratik puntua kendu eta gaia batzordean berraztertzeke proposatu zuen: “proiektuarendako berarendako interesgarriago iruditzen zait ez gelditzea, eztabaidatzen segitzea eta falta litekeen kontrol bitartekoak onartzea. Udala izan ditzakeen zalantzak argitzea”. Aldi beren, gaztigitatu zuen:

“ezin dugu proiektu hau geldiarazi ekonomia egoera ez delako ona. Akordioak lortu behar dira.

Proiektuaren neurria eta Sakanarako duen garrantzia kontuan hartzea eskatu zuen, “estrategikoa eta ezinbestekoa” dela nabarmenduz. Juan Carlos Orellana (Bildu) zinegotziak, bestalde, gaineratu zuen: “ibarreko ikuspegitik arigara lan egiten eta Altsasuri bai edo ez esateko eskumena ematea ez da bidezkoa”. Gonzalezek ohartarazi zuenez, “argi izan behar da emaitzak ez direla berehalakoan etorriko eta pazientzia izan beharko da”.

Kezkak

Geroa Baiko Unai Hualdek SGAK udalarendako zein gastu izanen lukeen eta udalak kontrolerako zein bitarteko izanen lituzkeen galdetu zuen. Mank-etik emandako argibideak eskastat jo zituen Hualdek: “Etorkizunean SGA kanpoko diru iturriekin ahalik eta gehien finantzatuak akzioak egiten saiatuko direla dio. Zehatza dugun bakarria aurtengo gastua da, langileak ordaintzekoa dena, gauza nabarmen gutxi egin behar direlako”. Udaleko interbentore-

aren txostenean kezka bere egin zuen Hualdek: “epe motz eta ertainera udalak proposatuko diren ohiko eta inbertsio gastuei aurre egiteko gaitasunik izanen duen ez dakigu”.

Berretsi zuen Sakanako garapen estrategia egon behar duela. “Baina eskualde barruan Altsasuk arazo ekonomiko propioak ditu eta, horregatik, SGArako proposatzen diren proiektuak eta gastu konpromisoak aurretik ekonomia sustapen batzordean aztertu behar dira”. Batzorde horretan gai horiek landu eta kontrolatzea proposatu du Geroa Baiko, hau da behetik gora-

Erabakitzeke

Udalak aurtengo aurrekontuetan 41.000 euro bideratu ditu aurtengo SGArako. Diru hori emateko ibarreko erakunde publikoari atxiki behar zaio. Gonzalezek udalaren aukerak zehaztu zituen: aurtengorako atxikimendua lehenbailehen ematea eta gero hurrengo urteetarako martxa nola egin adostea.

ko erredua. Bestalde, kuotak zehazterakoan populazioaz aparte herrien sozio-ekonomia egoera kontuan hartzeko zela ere aipatu zuen. SGArako administrazio kontseiluan dago Hualde: “udaleko batzordean hitz egin ez den proiektuen inguruan ez dut inolako jarrairik hartuko. Kontseiluan udalaren ordezkaria naiz”. Altsasuko Geroa Baiko ordezkariak eta Mankeko buru Aitor Karasatorre Muguza astelehenean trukatu zituzten ikuspuntuak.

Ezker Batuko Arturo Carreño ere kontra azaldu zen: “uste dugu Altsasun garapena eta enplegua sustatzeko Mank-etik ez ditugula nahikoa zerbitzu jasotzen”. Aldi berean, erabakiak Altsasuko Udalaren ekonomia gaitasuna neurri batean hipotekatuz lezakeela adierazi zuen, gaineratuz: “garapen partidak bikoiztu eginen lirateke, dagoeneko Cederna-Garalur dagoelako”. Azkenik, Carreñok esan zuenez zuela ulertzen Altsasuk Mank-en aurrekontuaren %52 ematea altsasuarren populazioaren herena diren. Azken hori ukatu egin zuen Gonzalezek, gehiago ordaintzen bada ur ihesengatik dela adieraziz.

Aralarreko Asun Fernandez de Garaialdek kontrol bitartekoei eta azaldu zen gainontzeko guztiari buruzko kezka benetakoak zireneko SGArako oztopatzeko aitzakia zen galdetu zuen. “Hamar urte daramatzat Sakanako garapenaz hitz egiten den bakoitzean Altsasuren zentralismoa, zilborra, aldarrikatzen dela ikusten. Ez dakit hori dagoen atzean, ibar eta herri klabea”.

Umeendako eta haurrendako premiazko laguntza banatuko du

Umeendako elikagai eta garbiketarik eta haurrendako eskola materialeko kitak banatzen hasiko da aurki Gurutze Gorria Altsasun. 750€ko errenta baino gutxiago eta umeak edota haurrak dituzten familiei zuzendutako laguntzak dira. “Egungo ekonomia egoeraren efektuak murrizteko neurria da. Laguntzak Oinarritzko Gizarte Zerbitzuen bidez eginen dira eta Gurutze Gorriak banatuko ditu”, azaldu digu Unai Hualdek.

IRRISTAKETA

IOSEBA FERNANDEZ MUNDIALETAN:
Gaurtik azaroaren 15era Abiadurako Irris-
taketako Munduko Txapelketa jokatu da

 Argentinan, Rosario. Bertan lehiatu da
Ioseba Fernandez txapelkun iturmendia-
rra. Helburua podiumeko lehian egotea da.

Atletismoa

Behobia-Donostiara

www.behobia-sansebastian.com

Etengabe eguneratutako informazioa.

**Igandean jokatu da herri
lasterketa ezagunaren 50. edizioa**

Fortuna Kirol Elkarteak antolatuta, igandean jokatu da 50. Behobia-Donostia lasterketa entzute-sua, korrikalariak zirkulu gorri borobilduta duten proba. Antolakuntzatik adierazi dutenez 34.022 korrikalari hartuko dute parte aurtengo edizioan: 30.700 korrikalari, 221 irristalari, 15 gurgildun aulki, 22 handbike eta beste modu batean ariko diren 29 ezgaitu. Horretaz gain, aurten, nobedade moduan, Behobia txikia eta Behobia gaztea antolatu dira, kategoriatxikiendako. Behobia txikian 2.800 korrikalari eman dute izena eta Behobia Gaztean 225 korrikalari. 50. edizioa ospatzeko ostiraletik hasita izanen dira ekitaldiak. Ibilbidean aldaketatxo batzuk sartu dituzte. 140 m gehiago ditu aurtengo ibilbideak eta desnibel gehiago, aurreko urteko 164 metrotik aurtengo 192 metrora pasa da.

Aurreko urtean 97 sakandarrak lortu zuten Behobia eta Donostia batzea: 30 altsasuarrek,


Aurreko urtean 97 sakandarrak osatu zuten proba.

28 etxarriarrek, 7 lakuntzarrek, 6 uhartearrek eta 5 irurtzundarrek. Olaztitik 4 korrikalari aritu ziren, Irañetatik, Arbizutik, Ergoienatik eta Urdiaindik hiruna korrikalari, Bakaikutik bi eta Arruazutik, Iturmenditik eta Ziorditik bana. Aurten ere sakandarren parte hartze handia espero da.

Gurgildun aulkian parte hartuko dutenek 9:30ean hartuko dute irteera, Behobia Gaztean ariko direnak ere 9:30ean, irristalariak 9:40ean eta korrikalariak 10:00etan

lehenak eta 11:30ean azkenak. Behobia Txikia larunbatean jokatuko da, Anoetan, 15:30ean.

Zerbitzuak

Antolakuntzak makina bat zerbitzu jarriko ditu indarrean: irteera eta helmugarako kontsigna, komunak ibilbidean barna, korrikalari segimendua egiteko App Run Loc zerbitzua, erretiratuendako zerbitzu berezia eta abar. Horretaz gain, RENFEk eta Euskotrenek tren zerbitzua indartu dute.

Futbola



Kimuen Futbol 8 Topaketak

3. jardunaldia igandean Altsasun

Mank-ek antolatutako Sakanako Kimuen Futbol 8 Topaketako 3. Jardunaldia jokatu da igandean Altsasuko Dantzalekun. 10 talde lehiatzen ari dira txapelketa moduan jokatzen den topaketan. Helburua txikiengandako kirola eta futbola sustatzea da, eta horregatik ez da sailkapenik egiten.

3. jardunaldia

Igandean, Dantzalekun
10:30ean: Urdiain - Kaixo
11:30ean: Txartel - Dantzaleku
11:30ean: Tipi Tapa - Sutegi
12:30ean: Mediolanum - Arbizu
12:30ean: Lagun Artea - Sayas

Futbola

PREFERENTE MAILA. 1. multzoa
8. JARDUNALDIA
LAGUN ARTEA 1 - BAZTAN 1

Baztan aurreratu zen eta Cristianek berdintzea lortu zuen. Garaipena eskura izan zuen Lagunek, baina markagailua ez zen gehiago mugitu. Baztan liderraren kontra puntu bat ateratzea ez dago gaizki.

Sailkapena >>

1. Baztan 20 p
8. Lagun Artea 9 p

Asteburuko jardunaldia

MUTILVERA B - LAGUN ARTEA

(Igandean, 16:30ean, Mutiloabeitin)

ERREGIONAL MAILA. 4. multzoa
9. JARDUNALDIA
ALTSASU 0 - SAN JORGE 1

ETXARRIK atsedean jardunaldia zuen. Nahiz eta Etxarri Aranatzek atsedean jardunaldia izan, lider jarraitzen du, 19 punturekin, San Jorgerekin berdinduta. Hain zuzen ere San Jorgeren kontra jokatu zuen Altsasuk larunbatean Dantzalekun. Partida gogorra izan zen, eta nahiz eta Altsasu saiatu, gorritxoek kontrako atean ez zuten asmatzen. Bukaerarako 15 minuturen faltan, eta nahiz eta 2 txartel horierekin jokalarit bat gutxiagorekin geratu, San Jorgek gola sartu zuen. Altsasuk ezin izan zuen erantzun. Horrela, urrezko 3 puntu galdu zituzten altsasuarrek eta 5. postutik 9. postura jaitsi dira.

Sailkapena >>

1. Etxarri Aranatz 19 p
9. Altsasu 14 p

Asteburuko jardunaldia

ETXARRI ARANATZ - BETI KOZKOR

(Igandean, 15:45ean, Etxarri Aranatzen)

AURRERA - ALTSASU

(Igandean, 16:00etan, Leitza)

Pilota

Ezkurdia-Olaizolaren partida, atzeratuta

Ezkurdiak ia ezinezkoa du sailkatzea baina dena ematera aterako da

Lau t'erdiko final laurdenetako ligaxkakoko 2. jardunaldian hilala bizi-ko partida jokatu zuten Etxebarrin Joseba Ezkurdiak eta Oinatz Bengoetxeak. Bi pilotariak min handia egin zuten sakearekin, baina pilotean leitzarra nagusitu zen. Ezkurdiak ez zuen bere maila eman, eta bere buruarekin haserre bukatu zuen partida. Partida hasi eta 8 tantoko errenta lortu zuen leitzarrak, saketik 5 tanto eginez. Arbizuarrak sakea berreskuratu eta 8-6 hurbildu zitzaion. Baina Bengoetxeak 7-1ekopartziala lortu zuen, 17-9 aurreratu. Ezker pareta erabili zuen horretarako. 18-10 hurbildu zen Ezkurdiak, baina Bengoetxeak 4 tanto egin zituen jarraian eta partida irabazi zuen.

Atzerapena

Aimar Olaizolaren kontra ariko da Joseba Ezkurdiak Lau t'erdiko final laurdenetako ligaxkakoko 3. eta azken jardunaldian. Aurreko bi jardunaldiak galtzetik dator arbizuarrak, eta nahiz eta finalerdietara pasatzeko aukera urriak izan, irabaztera derrigortua eta gainontzekoek egiten dutenaren menpe

Finalerdian egoteko karanbolak



A multzoan, Mikel Olaetxeak eta Aimar Olaizolak dituzte finalerdietarako sailkatzeko aukerarik onenak. Oinatz Bengoetxea irabaztera derrigortua dago, eta multzo honetan Joseba Ezkurdiarena da egoerarik konplikatuena. Arbizuarrak Olaizolaren kontra 16 tantoko aldearekin irabazi behar-

ko luke eta Bengoetxeak Olaetxearen kontra galdu behar luke arbizuarrak finalerdietara sailkatzeko. B multzoan Saralegik eta Xalal dituzte aukerarik onenak. Irujo aldearekin irabaztera derrigortua dago eta Julen Retegik 17 tantoko aldearekin irabazi behar luke Xalari.

baitago, dena ematera atera behar luke.

Saralegik ezker eskuko hatz luzeko puntan haustura du, eta Irujoen kontrako partida azaroaren 15era arte atzeratu dute. Enpresek Olaizolaren eta Ezkurdiaren par-

tida azaroaren 16ra atzeratzea erabaki dute ere. Gainontzeko bi partidak asteburu honetan jokatu dira. Olaetxea eta Bengoetxea VI.ak larunbatean jokatu dute, Labriten, eta Xalal eta Retegi Bik igandean, Eskoriatzan.

Bakaikoa, Nafarroako txapelketa


Bakaikoa, txapelarekin, eta Juankorena. Erdian, federazioko Iriarte. twitter
Jubenilen Mailako Nafarroako Buruz Buruko Txapelketako finalean etxarriarrak 18-2 irabazi zion Julen Juankorena taldekideari

Emozioz betetako finala izan zen asteazken arratsaldean Iruñeko Labrit pilotalekuan jokatu zena. Izan ere, Erreka klubeko bi taldekidek lortu zuten Nafarroako Jubenilen Mailako Buruz Buruko Txapelketako finalera sailkatzea: Joanes Bakaikoa etxarriarrak eta Julen Juankorenak. Bi pilotariak bikain ezagutzen dute elkar eta lehia estua espero zen, baina partidak ez zuen saltsarik izan. Joanes Bakaikoak egin zuen lehen

tantoa, eta Julen Juankorenak bana berdindu zuen eta segidan 2-1 aurreratu zen bi pareta eder bati esker. Hurrengo tantoa pilotatua izan zen, eta Juankorenak ezin izan zuen zazpitik erantzun. Bakaikoak sakea berreskuratu zuen eta hortik aurrera partidako jauna eta jabe izan zen etxarriarra. Bere sake zitalak min izugarria egin zion Juankorenari eta etxarriarrak bata bestearen atzetik egin zituen tantoak, zuzenera 18ra helduz. 18-2 irabazita, Nafarroako jubencil mailako txapelketa dugu Joanes Bakaikoa. Zorionak!

Harrijasotzea



Mikel Lasarte.

Sakanako Harrijasotze Eskolaren erakustaldia Irurtzunen

igandean, 17:30ean, plazan

Sakanako Harrijasotze Eskolak Irurtzungo kiroldegian du egoitza. Bertan ematen ditu eskolak, asteartero, Mikel Lasarte harrijasotzaileak. Klasean lantzen dutena erakusteko, Irurtzungo San Martin festetan harrijasotze erakustaldia egingen dute Sakanako Harrijasotze Eskolan aritzen diren kirolariak, igandean, 17:30ean, Irurtzungo plazan. Pisu ezberdinetako eta tamaina ezberdineko harriekin altxaldiak egingen dituzte.

Areto futbola

Futsalsakana txapelketako 2. jardunaldia jokoan

Bihar, larunbatean, 2. Futsalsakana Areto Futbol Txapelketako 2. jardunaldia jokatu da Uharte Arakilgo frontoian.

2. jardunaldia

Larunbatean, Uharte Arakilen
15:00etan: Racing S. Migel - Bunker
16:00etan: Auzomotojorik - Arbizu harrobia
17:00etan: Hijos de perla - Arbizu
18:00etan: Back Street Boys - Iturmendi

Futbola

Egiarretak Zaldua hartu zuen menpean derbian

Asteburuan Elomendiko Futbol Txapelketako 7. jardunaldia jokatu zen. Bertan lehiatzen diren bi talde sakandarrek, Arakilgo Zalduak eta Egiarretak, derbia jokatu zuten. Egiarreta izan zen garaile, Zalduari 4-1 irabazita.

Sailkapen orokorrean Bar Poukas da liderra, 18 punturekin eta Egiarreta 2.a da, 16 punturekin. Zaldua 7. postura jaitsi da, 6 punturekin. Asteburuan Egiarretak eta Bar Poukasek lidergoa dute jokoan, Zizurren jokatu den partidaren ondoren. Aldiz, Apolok eta Zalduak jokatu beharreko lehia atzeratu egin da.

Saskibaloia

Sakanako II. Saskibalo Topaketak abian

Premini mailako taldeek parte hartuko dute, astebururo. Ilbeltzera bitartean astebururo nahasita arituko dira jokalaria, eta ilbeltzetik aurrera jokalaria bakoitza bere taldearekin lehiatuko da

Aurreko urteko topaketaren arrakastaren ondoren, Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak Sakanako II. Saskibalo Topaketak antolatu ditu, hainbat laguntzaileekin batera -Irurtzun, Etxarri Aranatz eta Altsasuko Udalak, Altsasu eta Irurtzungo Saskibalo Taldeak eta Andra Mari ikastola-. Aipatu topaketetan premini mailako taldeak ariko dira, 8 urtetik 10 urtera bitarteko neska-mutikoak, Altsasuko Saskibalo Taldekoak, Irurtzungo Saskibalo Taldekoak eta Andra Mari ikastolako Saskibalo Taldekoak. Helburua saskibaloia sustatzea eta Sakanako talde eta neska-mutikoen arteko harremana bulkatzea da. Ez da txapelketa lehiakorra, eta horregatik ez da



Premini mailako neska-mutikoek gustura pasa zuten aurreko urtean.

sailkapenik egingen.

Berrikuntzak

Aurten nobedadeak izanen dira. Azarotik ilbeltzera bitartean jokalaria nahasita ariko dira. Hau da, astebururo talde ezberdinak sortuko dira eta euren artean lehiatuko dira. Eta ilbeltzetik aurrera taldeen arteko partidak jokatu dira.

Partidak igandetan jokatu dira, Altsasuko Zelandi kiroldegian, Etxarri Aranatzko San Donato ikastetxe pilotalekuan edo Irurtzungo kiroldegian. Zelandin jokatzeko direnean bi partidak batera jokatu dira, goizeko 11:00etan. Aldiz, Etxarri Aranatzeko eta Irurtzunen bata bestearen atzetik jokatu dira, goizeko 11:00etan eta 12:00etan.

Pala

Neskak, palei hautsa kentzeko garaia da



Sakanako emakume palista bikainak daude.

Sakanako IX. Nesken Pala Txapelketa antolatu du Mank-ek

Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak, Etxarri Aranatzko Nesken Pala Eskolaren eta Altsasuko eta Etxarri Aranatzko Udalen laguntzarekin Sakanako IX. Nesken Pala Txapelketa antolatu du. Txapelketa azaroaren bukaeran hasiko da

eta 4 mailatan jokatu da: gazte txoak, gazteak, helduen 1. maila eta helduen elite maila. Partidak Etxarri Aranatzko eta Altsasuko pilotalekuan jokatu dira, ostiralean (19:00etatik aurrera), larunbatean (15:30etik aurrera) eta igandean (10:30etik aurrera).

Sakanako emakumezkoen pala txapelketa Sakanako kirol egutegian guztiz errotua dago. 2013an 26 bikote lehiatu ziren, 5 kategoriatan: 5 bikote kimuetan, 4 bikote hurretan, 6 bikote kadeteetan, 5 bikote gazteetan eta 6 bikote helduetan. Aurtengoa 9. edizioa izanen da eta antolatzaileak txapelketan aritzera animatu dituzte palista sakanadarrak. "Etxarriko Nesken Pala Eskolan lan izugarria egiten du pala sustatzeko eta 30 neska inguru aritzen dira bertan. Horretaz gain, euren kabuz palara jokatzeko duten makina bat neska daude. Anima daitezela guztiak" adierazi dute antolatzaileek. Sari politak izanen dira.

Izena emateko

Azaroaren 14a baino lehen Mank-eko Kirol Zerbitzuan (948 464 866, kirolak@sakana-mank.com) edo Migel Aristorenari hots eginez (638 138 231). Gaztetxoak eta gazteak dohainik, eta helduak 20 euro bikoteko.

Areto futbola

Magna Errege Kopatik kanpo, penaltietan

Punteria faltak beste nahigabe bat emandio Magna Nafarroa Xotari. Irurtzungo taldea Errege Kopatik kanpo geratu da, astearteko final laurdenetan Santiago Futsalen kontra seina berdindu eta penaltietan 5-4 galdu eta gero.

Magnak eta Santiago Futsalek ikusizun bikaina eskaini zuten. Gol festa ederra izan zen. Roberto Martil, Javi Esevenri (2) eta Jesulito (2) jokalarieiesker bosna berdindu zuten Magnak. Irurtzungo taldea irabazteko antolatu izan zen, 44. minutuan Tolrák 5-6 aurreratu baitzuen Magna, baina berehala berdintzea lortu zuen Santiagoko Quintelak.

Orduan hasi zen penaltien loteria. Jokalari guztiak gola sartu zuten, Javi Saldisek huts egin arte. Penaltietan 5-4 galduta, Errege Kopatik kanpo geratu dira irurtzundarrak.



LEVANTEREN KONTRAKO PARTIDAN ZENTRATU

Orain lehen mailako areto futbol txapelketan jarri beharko du burua Magnak. Aurreko ostiralean Palmaren kontra 5-1 galdu zuten Imanol Arregiren mutilek. Inter Movistar da ligan liderra (20 puntu) eta Magna 9.a da (10 puntu). Atzo, Santiagoko bidaiaz apenas erreperatzeko tarterik izan gabe, Valentziako bidaia egin zuten irurtzundarrek. Izan ere, gaur partida garrantzitsua dute Levanteren kontra. Levante 8.a da sailkapenean (12 puntu), eta Magnaren arerio zuzena da. Sailkapeneko postua dago jokoan. "Ligan ongi jokatzeko ari gara, baina akats indibidualengatik ari gara galtzen. Lan egiten jarraitu behar dugu, hobetzeko" adierazi du Imanol Arregi entrenatzaileak.

Bestalde, Samuel Carrillok du Magnan jarraituko. Bi aldeak jokalariren kontratua etetea erabaki dute.

PPSOE,
Euskal
Telebista
digitala
Nafarroan
orain!

Berria erosi taldea

Sorgiñak
 taberna

LAKUNTZA
 948 576 357

9 lagunendako
TAXIA

Jon Kordon

948 500 388 / 629 428 025
IRURTZUN

zabal
 iturgintza

Iturgintza - Berokuntza - Gasa
 Biomasa - Energia berriztagarriak

Aitor Mendizabal
 Andra Mari, 27
 01250 Araia (Araba)
 Tel: 605 748 304
 zabalfontaneria@gmail.com
 www.fontaneriazabal.com



GRUPO TANATORIO
IRACHE
TANATORIO TALDEA

948 564 355
679 160 116
(24 ORDUZ)

TANATORIOAK: ALTSASU-IRURTZUN-LEKUNBERRI-BETELU-LEITZA

www.tanatoriosirache.com



Patxi Oyarbide Araña

Gu artien yonko yeiz beti.

Hire kuadrilla



Patxi Oiarbide Araña

Zuen saminarekin bat egiten dugu.

Zure emazte eta arrebaren lankideak

Etzarri Aranatz, 2014ko azaroa.



Mikel Arregi Marin


XXXV. urteurrena



Zure irrifarra zure alaitasuna, gure artean bizirik.

Zure familia

Lakuntzan, 2014ko azaroaren 11n.



Patxi Oiarbide Araña

Bihotz beroa, atsegina, su eder bat bezalako neguko gau hotzean.

Beti gurekin.

SAPAKo lankideak

Oroigarriak



Guaixe KOMUNIKAZIOA

948 564 275



Hainbat aukera

Galdetu

948 564 275

guaixe.iragarkilaburrak.com

1 HIGIEZINAK	4 DENETARIK	7 AISIA/KIROLA
2 TEKNOLOGIA	5 IBILGAILUAK	8 FAMILIA/ETXEA
3 LANA/NEGOZIOAK	6 HARREMANAK	

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Webgunean: guaixe.iragarkilaburrak.com-en doan
Guaixe astekarian: Saldu/erosi, erretan eman/ hartu, lan eskaintzak 11 euro + BEZ / 3 aste

HARREMANETARAKO

Telefonoa: 948-56 42 75
Posta elektronikoa: zorian@guaixe.net

Lana/ Negozioak

LAN ESKAINTZA

Errioxako enpresa batek. Lana ematen du ordenagailuarekin etxetik lan egiteko. Adin guztietarako. Telefonoa 699 38 26 73.

Frantses klase partikularak. Frantsesa nire ama hizkuntza da eta maila guztietako klaseak ematen ditut. Baita zientzia eta matematika klaseak ere. Telefonoa 678 30 08 73.

Higiezinak

LOKALAK

ERRENTAN EMAN

Jatetxe-taberna alokatzen da Arbizun. Telefonoa 948 46 04 04.

**San Clemente festetarako Lizarragako elkar-
teak hartzeko.** Enkantea azaroaren 9an, arratsaldeko 17:00etan Azi Iturri elkartean bertan. Gutxieneko dirua 600 €.

Ikastaroak

Zuzenean saltzeko estrategiak. Arbizun, azaroak 7an eta 14an. Orduetgia: 9:00 – 18:00. Argibide gehiago 948 56 70 10 telefonoan eta sakana.admon@cederna.es posta elektronikoa.

AES. Hainbar ikastaro: "Ingelera elkarriketa praktikak", Arbizun, 40 ordu, azaroa-abendua; ETEi aplikatutako trebatasun pertsonalak, Arbizun, abenduan; Informazio gehiago: 948 46 83 07 eta formacion@aesakana.com

IFESek hainbat ikastaro antolatu ditu Iruñean. Informazio gehiago www.ifes.es, 948-15 31 93 edo 948- 46 71 20. On line ikastaroak: izen ematea <http://www.ifes.es>

Forem Navarra – CCOO ikastaroak. Informazio gehiago: www.foremnavarra.org

AIN-consulting ikastaroak. Informazio gehiago: 948 42 11 23 eta formacion.ain.es/

Lehiaketa

V. Gaztezero bideo lehiaketa. Bideoek "Hi eta hire munduak" gaia izanen dute oinarri. Gutxienez minutu bat eta gehienez 3 minutuko luzera izan beharko dute. 16 urtetik gorako gazteek parte hartu dezakete. Lanak azaroaren 6a eta 16a bitartean aurkeztu daitezke. Informazio gehiago: www.gaztezero.com

Oharrak

EHE ren zozketa. Edinburgon 2 lagunendako egonaldia 348 zb txartelak eskuratu du. Zerbaki sarituaren jabea euskaltzale@euslherrianeuskalaraz.org e-postara mezua bidal dezala.

CAF-ELHUYAR sariak. Hiru kategoria daude: Dibulgazio-artikulu originalak (2000 euroko saria), zientzia-kazetaritzaren arloko lanak (2000 euro) eta zientzia gizartearen sorkuntzabeka (5000 euro). Lanak 2015eko otsailaren 12a arte bidal daitezke, Elhuyarren egoitzara (Zelai Haundi kalea 3), Osinalde industrialdea, 20170

Usurbil] edo cafelhuyarsariak@elhuyar.com helbide elektronikora.

Autoenplegurako laguntza. Zure lanpostua sortu nahi baduzu Cederna-Garalurrek honako laguntza eskaintzen du: ideia aztertzea, proiektua garatzea, enpresa sortzea edota martxan dagoen jarduera sondotzea. Argibide gehiago: 948 56 70 10, sakana@cederna.es edo sakana.admon@cederna.es

Nafarroan herri komunikabide bat sortzeko. Diru bilketa hasi dute, Ahotsa behar dugu lelopean. Ekarpentak kontu korrantean (3035 0229 39 2290033933 Laboral kutxa) edo <http://goteo.org/project/ahotsa-behar-dugu?lang=eu> bidez egin.

Mintzakide proiektua. Egonkortzeko denon laguntza behar dugu, lagundu zabalitzen eta finantzatzeko: <http://goteo.org/project/zu-gabe-ezin>

Nafarroako Elikagaien Bankuaren alde. Diru ekarpenak kontu korrante hauetan egin daitezke: Laboral kutxa 3035 0069 52 0690024878, Rural kutxa 3008 0001 16 0700279128 eta Caixabank 2100 2173 87 0200346965.

Haurren erritmoak errespetatzen dituen eskola librea nahi baduzu. Deitu 661- 59 04 20 telefonora.

Euskonek ekonomikoki laguntzeko kanpaina. Informazio gehiago: www.euskonek.com/laguntza

euskonek@euskonek.com, 943- 32 22 94.

3MBk kontu korrantea zabaldu du. Rural kutxa eta jendeak han egin ditzake ekarpenak 3008 0093 66 2460985811

Auzolana Josefina Arregui klinikan. Auzolanean parte hartu nahi dutenek 948- 56 38 50 (klinika) edo 689- 03 51 20 (Patxi) telefonotara hots egin dezatela.

Bazkideak Josefina Arregi klinikarako. Bazkidea izan nahi duenak urtean 12 € edo nahi duen kopurua eman dezake. Informazio gehiago: amigosjosefinaarreguilagunak.blogspot.com edo amigosjosefinaarreguilagunak@gmail.com

Eskuratu zure beleixeguaixen txartela. 50€ko kuota urtean eta deskontu eta abantaila paregabeak betirako. Deitu 948 564 275 eta izena eman edo bete formularioa gure webgunean www.guaixe.net.

Nafarroako Ondarearen Defentsarako Plataforma laguntzeko. Eliza katolikoak, Iruñeako eta Tuterako Elizbarrutiaren bidez, Nafarroako herrietan egiten ari zen ondare publikoaren inmatriculazioei aurre egiteko sortu zen. Egoitza Iruñeko Estafeta kaleko 57. zenbakian dago.

Liburua argitaratu dute, hitzaldiak eman. Laguntza jasotzeko ondoko kontu korrantea zabaldu dute Nafarroako Kutxan: 2054/0142 68 9152623199.

JAIOTZAK

- Zaira Jimenez Fernandez, urriaren 24an Irurtzunen.
- Annette Curiel Peña, urriaren 25ean Altsasun.
- Enai Garcia de Eulate Azanza, urriaren 28an Altsasun.

HERIOTZAK

- Aurelia Razkin Beraza, urriaren 27an Uharteko Arakilen.
- Antonio Fernandez Perez, urriaren 28an Altsasun.

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da

**Lugorri produktu ekologikoen elkar-
teak denda.** Sakanan produktu ekologikoen zuzenean eskuratzeko gunea da Lugorri, inguruko nekazari eta abeltzainekin harremanetan jarriz edo hornitzaile desberdinei eskatuz. Bertako eta urtaroko produktu ekologikoen alde egiten du Lugorri. Lugorriko partaide egiteko 50 euroko kuota bakarra eskatzen da. Lugorriko Lakuntzako dendan (Mankomunitatearen parean) salgai dagoena: fruta, barazkiak, ogia, ardoa, olio, gazta, arroza, pasta, gailetak, txokolata, haragia, behi esne eta esne begetalak, ezitia, arrautzak, garagardoa, leka-leka, ozpina... Informaziorako: 656 711 130 (Gorka).

IZU PASABIDEA: Larunbatean, 20:00etatik 22:00etara, Satrustegin. Iruñeko Gurutze Enparantza institutuko arte eszenikoetako ikasleak parte hartuko dute. Satrustegiko Kontzejuk antolatatu du emanaldia, "beldurra pasatzera" animatuz.

kultura >>

Triciclerekin 10 segunduero barre egitera

Larunbatean, 20:00etan Altsasuko lortia kultur gunean. Sarrerak agortuta.

%100 *Tricycle* ikuskizunari esker Bartzelonako klown taldeari publikoak behin eta berriz eskatu dizkion esketxak

berriro ikusteko aukera izanen da. Izan ere, bihar Iortian ikusgai izanen dena Triciclek sortu dituen zazpi ikuskizunetako momentu egokienez egindako antologia bat da. Eguneroko pertsonaia eta ekintzetan oinarritutako komedia egoerak.



Xaboi-burbuilen magia

Igandean, 17:00etan, Altsasuko lortia kultur gunean Clinc! ikuskizuna

Pep Bouren hizkuntza pro-pioan beste urrats bat da *Clinc!* Komikotasun handia duten bi pertsonaia dira protagonista. Antzerki bisuala baino gehiago da Iortian ikusgai izanen dena. Ikuskizunean pertsonen arteko lankidetzak oinarri duen jarrera positiboaren aldeko apustua egiten da: isolaturik bizi beharrean, lankidetzan hastean protagonistek mundua ikusteko modua aldatuko dute, eta,

kontuezagunen beldur izan beharrean, kontu berriak aurkitzeaz gozatuko dute.

Aldaketa horiek eguneroko tresnerabiltzean agertuko dira: ura, xaboi, hodiak, uztaiak eta ke lurrunezko makinak, besteak beste. Protagonistek inguratzen gaituenaren edertasuna ikustea lortuko dute. Aldi berean, errealitatea eraldatzeko duten gaitasunaz eta pertsonen arteko kolaborazioaren onurez jabetu egingen dira. Isaias Antolin eta Eduardo Tellexea izanen dira oholtzan.

San Martin folk ametsetan

Bihar Gaztela-Leongo Maria Salgado eta etzi Ruper Ordorika, 19:00etan, Irurtzungo kultur etxean

Herri-musikari eskainitako zikloa Maria Salgadok zabalduko du bihar. Zamorako Toro herrian sortua, joan den mendeko 70.eko hamarkada akaberatik dabil kantari. Hainbat egilerekin lehenik, bakarka ondoren, Gaztelako musika izan du oinarri. Argitara eman dituen dozena bat diskoetan sorterriko doinuak Kubakoekin, Portugalgoekin, Galiziakoekin, Sudangoekin, sefardiekin, uztartu, aberastu eta eguneratu ditu, beti ere oinarria garbi izanda. Poesia gaztelarra ere musikatu du eta Gaztelako habanerak ezagutzera eman ere bai.

Salgadok bere emanalditan, testuen poesiarekin batera, sentiberatasun handia erakusten du. Gai ugari kantatzen dio zamorarrak eta kontzertuetan hainbat "harribitxi" eskaintzen ditu.

Ordorika

Gaztelako musikaren ondoren Euskal Herriaren txanda izanen da Folk Ametsetan zikloan. Ruper Ordorika kantaria izanen da Irurtzunen. Oñatiarra euskal kantagintzako bakarlari nabarmenetako bat da eta bere ibilbidean folka, herri kantuak eta rocka landu ditu. Kantutegi zaharretik, oler-



karietatik, rock-etik eta blusetik edan du Ordorikak eta hala jaso du bere sormenean. 80ko hamarkadan ekin zion ibilbideari doinu elektro-akustikoekin. Hamarkada aldaketak rock-era hurbiltzea ekarri zuen. Garai hartan hasi zen Hiru Truku taldearekin herri kantagintza lantzen. Ibilbide oparoko kantaria etzi bakarka ariko da Irurtzungo kultur etxean.

Zikloaz

Folk Ametsetan zikloak 23 urteko ibilbide oparoa du. Baztango, Cas-tejongo, Irurtzungo, Lekunberriko eta San Adriango udalen eki-

Egitaraua

Maria Salgado. Azaroaren 8an, larunbatean, 19:00etan Irurtzungo kultur etxean.

Ruper Ordorika. Azaroaren 9an, igandean, 19:00etan Irurtzungo kultur etxean.

Desvarietes Orquestina. Azaroaren 16an, igandean, 19:00etan Irurtzungo kultur etxean.

menez aurrera egiten du. Urte horietan makina bat herrialde-tako herri-musika ezagutarazi du, besteak beste, Afrikako eta Kari-beko erritmo biziak, gospel, jazz eta blues sakonak, musika zelta, countrya edota flamenkoa.



ISOLATZEA AURREZTEA DA

Isolamendu termikoa eta akustikoa

AISLANat, Nafarroan ekoiztutako zelulosazko isolamendu bakarra

OBRARIK GABE

EKOLOGIKOA

EGUN BATEAN

Isolatu zure etxea zelulosarekin

948 33 00 15 . 627 41 22 69

www.aislantesaislanat.es




Feriako fototeka

Bihar, 19:30ean, Iortia kultur gunean ferietako argazki rallyko argazkiak ikusi eta saria banatuko dituzte

Lastailaren 19an ospatuzen Altsasuko ferian 40 argazkilarik parte hartuzuten Altsasuko Mendigo-

zaleak taldeak antolatutako argazki rallyan. Epailerekin euren lana egin ondoren, bihar banatuko dira sariak. Baina horren aurretik argazkilariek egindako argazki guztiak pantaila handian ikusteko aukera izanen da. Ferietako rallyan

ateratuko argazkiak ikusteko aukera bakarra ez da larunbatekoa izanen. Zeren eta Altsasuko Mendigoizaleak taldeak asteleheneretik hilaren 23ra arte argazkiak Gure Etxea kultur gunean ikusgai jarriko ditu, 19:30etik 21:00etara.

Pertsonalitatea

Erkuden Ruiz Barroso

Artearen munduan bi forma mota daude: alde batetik, forma geometrikoak, lerro zuzen eta egonkorrez osatutako gauzak, katilua, patinetea edo aulki bat, esaterako; eta, bestetik, forma organikoak, lerro makurrez edo kurbez osatuta daudenak. 3D objektuak egiteko sailkapen berdina erabiltzen da, hortaz, forma geometrikoak industrialagoak izango dira –katilua, eserlekua, jostailuak, aulkia, eta abar, eta, bestetik, objektu organikoak animalia, pertsona, eta abar egiteko erabiltzen dira. Sakana Animatika 3D Enplegu Eskola Tailerrean bigarren urratsa objektu organikoak egiten ikastea zen.

Bigarren hilabetea, forma geometrikoetatik organikoetara

Dagoeneko modelatzen badakigu. Loopak zer diren eta nola antolatu behar diren ordenagailuan objektuak sortzeko, gutxigora behera, kontrolatzen dugu. Baina ez da gauza bera katilu bat egitea edota eserleku bat egitea edo objektu organiko bat egitea. Objektu organiko bat kurbak dituen objektu bat da, nahiz eta pantailaren beste aldean egon, bizitza duen zer-bait, pertsonalitatea duena.

Tailerra hasita zegoela jakin genuen ebaluazioak egon behar zirela, azterketak egin beharke genituela. Enplegu eskola tailerra amaitu ondoren profesionaltasun ziurtagiri bat jaso behar dugu, eta ziurtagiria lortzeko gure lana ongi egiten dugun edo ez jakin behar dute. Dena dela, gure lanaren emaitzak jakiteko beste hainbat modu daudela uste dugu, azterketak edo

ebaluaketak egin behar. Hala ere, ez zituzten gure eskakizunak entzun eta ebaluaketak egin behar izan genituen.

Modulu bakoitzeko bi ebaluaketa mota ditugu: alde batetik, ebaluaketa jarraiak, moduluaren barruan egiten diren ebaluaketak, eta, bestetik ebaluaketa finalak, modulu amaitez dagoen egiten diren azterketak.

Beraz, forma organikoekin hasi baino lehen forma ez-organikoen ebaluaketa jarraia egin behar izan genuen, forma ez-organikoak egiten badakigula erakusteko. Aulki bat egin genuen. Ez zen aulki normala, diseinukoa baizik. Guztiok gauditu genuen jarritako lehenengo oztopoa.

Bigarren urratsari ekin genion: forma organikoak. Guztiok batera marrazki biziduneko panda hartz bat sortu genuen. Modelatzea zaila zela pentsatzen bagenuen, pandaren gorputzarekin amorru mota guztiak ezagutu genituen. Loopak modu zehatz batean jarri behar ziren sabela handi eta borobilaren forma bilatzeko.

Desesperaziotik harri duna aurpegietara. Panda amaituta ikusi genuenean, hain pottolo, hain poli-



ta, hain maitakor... ia sufrimenduguztiak aha zutu zitzaizkigun.

Animatzaile, zuzendari, ekoizle

Tailerrean lan-martxa izugarria da. Hilabete batean modelatzen ikasi genuen, bigarranean forma organikoekin hasi ginen, eta, gainera, Animazioko ziurtagiriaren beste bi moduluarekin hasi ginen: Aurre-ekoizpena eta Ilustrazioa -modelazio moduluaren barnean dagoen formazio unitatea.

Aurre-ekoizpena film bat egin aurretiko prozesua da; gidoi literarioa, tekniko eta storyboard-a egitea, besteak beste. Pixkanaka eta taldekala labor-metrai sortu genituen.

Ilustrazioan 3D-tik 2D-ra pasatu ginen. Paperezko orri bat hartu, arkatza, koloreak eta marrazten eta margotzen hasi ginen. Lerrosinple batzuetatik formak osatzen hasi ginen, eta, unitatea bukatu genuenean pertsonalitate dun pertsonaiak marraztu genituen, noizbait modelatzeko nahiarekin.

Etxepare sariko albuma jendarte




rrenez irabazi du sariketa haur literaturan ezohikoa den modu batean, "misterioa, beldurra eta egonezina sentiarazteko narrazioa" idatziz.

Hala ere, liburuaren akaberran irribarrea pizten du, hizkuntzarekin jolastuz, halako alkimia baten bitartez. Akabera harrigarriak, gainera, liburu atzera ere irakurtzera bultzatuko du irakurlea, bestelako ondorioak atereaz. Salaberriak irudiak egiteko ohol gainera, pirograbatua erabili du. Ezohiko teknika, liburuaren edukiarekin lotua dagoena. Sei urte-tik gorako haurren dako lana da Salaberriarena.

Nafarroako hainbat toki erakundek, Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak tartean, Pamiela argitaletxearekin batera antolatzen duten VII. Etxepare Sariko albuma aurkeztu zuten herenegun: *Hiltzaileak*. Leire Salaberria andoaindarrak biga-

bazterretik

Juankar Mugartza



Bardoitzako andrea

Sakana lur aberats eta emankorra da alde askotatik begiratuta, eta altxor kulturalen ikuspegitik bereziki. Mendietan eta ibarretan, milaka dira gure iraganaren aztarnak. Horietaz hitz egin dugu behin baino gehiagotan zutabe honetan. Baina gaur lerro honetara dakar-kizuedana ixil-ixilik egon da zarataskorik sortu gabe, mendetako loaldian gure begien bistatik kanpo, Joseba Aurkenerenak, historia irakasle eta euskal idazlea denak, kazeta.info aldizkari birtualean honen berri eman duen arte. Sakanan badugu, izan, altxor miresgarri bat Urbasako harrietan izkutatuta, eta berak loaldi horretatik esnarazi du denok parteka dezagun.

Berak kontatzen duenez, Urbasan megalito eta historia aurreko aztarna asko ditugu, baina bada bat guztiz bitxia eta menderen mendetan hantxe egon dena inor ere horretaz konturatu gabe, Jon Zufiaurre basozaina egun elurtsu batean handik pasatu zen arte. Izan ere, elurte baten ondoko egun batean, Otsoportillora doan bidetik igo eta handik ez oso urruti, Jon Zufiaurrek haurra egiten ari zen andere baten irudia antzeman zuen elurrean marraztuta Bardoitzako idoi-

ren ondoan. Elur gehiena joanda bazegoen ere, hankare harrizko zulo batzuetan elurra eta ura gelditzen zen oraindik, irudi berezi bat osatuz. Emakume baten irudia argi eta garbi ikusi zuen: eskuetan megalito batzuen aztarnak sostengatzen zituen eta haur bater ditzten ari zen... zilbor hestea eta guzti ikusi zuen basozainak!

Hego Ameriketako Naska aldeko irudien antzera, airetik baizik ez da ikusten. Lurrean bazaude, pasieran, ondo-ondoan egon zaitezke eta, agian, ez zara konturatuko elurrik ez badizu laguntzen. Airetik, berriz (edo teknologia berriak erabiliz, Google Maps adibidez), argi eta garbi ikus dezakegu denok Jon Zufiaurrek lehenengo aldiz ikusi zuena. Hortxe dago, Bardoitzako andrea Urbasako haur jaioberria munduraten.

Pasa den urriaren 26an, olerkari talde bat bildu zen leku hartan Bardoitzako andereari eta bere haur jaioberriari errezitaldi bat eskeintzeko. Hantxe egon ziren Auxtín Zamora, olerkari lapurtarra, eta beste asko, Jon Zufiaurre basozainaren ondoan. Bardoitzara, igande hartan, egin zen ibilaldi eder haren oihartzun eta argazkiak blog honetan aurki ditza-ke zue: <http://olerkarieneguna4.blogspot.fr/>. Aintza eta aintza Bardoitzako Andereari!

Erabiltzen dituen

Nafarroako berezko txistorrak izen bat du

FLORES S.L.

txistor ekologiko

Uztubar industriak Tel. - Faxa: 948 460 499 406320

BIKAIN
GARAJEA, S.A.L.

948 460 037 Arbizu
948 468 441 Altsasu

Auto berri eta bigarren eskukoak SALMENTA

**Mekanika
Elektrizitatea
Txapa
Margotzea**



Azaroaren 30era arte, astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara Altsasuko Iortia kultur gunean. Gaur, 19:00etan mustutzea.

Begoña Salazar Romo

Seigarren aldiz erakutsiko du Salazarrek Altsasuko gaiet buruzko liburuak. Dozena bat argazki bilduma berri daude aurreko urteetako beste hainbatekin batera (130 bat liburu eginak ditu). Pasa den urteko ilbeltzean erakutsi zituen azkenekoz bere bilduma liburuak eta jendea "otsailetik beste erakusketa bat noizko galdezka ari zitzaidan".

Salazar: "jendeari gehien gustatzen zaiona argazkiak ikustea dela ohartu naiz. Di-da batean pila ikus daitezke. Horregatik, argitalpenen moldaketak egiteari utzi diot. Historia eta bestelako gaiak lantze-ari utzi diot eta argazki albumak dira ekarri ditudanak". Bere erakusketetan hutsik egiten ez duen jendea dago. "Eta ahal badute, egunero etortzen dira. Emakumeak gehienak. 70 urte ingurukoak". Lehengo ohitura eta bizimoduaren erakarmena.

Bildumak egiteko zalantzak ditu. Urte asko dira. Pasa den urtean bukatu eta erakusketa berri honetarako materiala banuen. Jendeak argazkiak ehunka ematen dizkit. Gero eta errazago da. Hasieran lotsa moduko bat zuten familia ateratzeko eta. Baina erakusketak pasa ahala hori galdu da. Hileta, ezkontza,... berdin du zein gaitako argazkiak diren, pasa egiten dizkidate. Pasa den urtean ez beste guztietan Salazarrek beste egile batzuekin batera erakutsi ditu bere liburuak. Bere ohiturara bueltatu da.

Jose Mari Olmos Amillano

Salazarren liburuak hartzen dituen mahai bat, sendoena, Olmosek egindakoa da. Urtero Altsasuko maiatzeko artisau ferian bere tailak erakusten dituelako ezagunagoa da Olmos. Betidanik zurgina, taila ikastaroak ematen ditu. Tailekin eta kutxekin erakusketa egin zuen, baina oraingoan eskultura jarri du ikusgai.

"Erremintak, aitzinako gauzak eta herriari lotutako gauzak asko gustatzen zaizkit, kutxak eta halakoak". Tailarekin segitzen badu ere, aldatu beharrak eskulturara eraman du. Bolumen handiko egurrezko eskulturak. Eskulturak lantzeko oholak kolatu, moztu eta beste egin behar du, tailatik guztiz ezberdinak diren teknikak. Gustura dabil bi adierazpideetan.

Tradiziotik eta banguardiatik dutenak. Iraganeko elementuak dira bere eskulturetako protagonistak. Beti izan ditu gustuko. Bukatu gabe dauka Leonardo da Vincideren Vitruvioko gizona, baina haren markoa da ikusgai jarri duena.

Koldo Arnanz Zufiaurre

Zazpi bat urte erakusketa handirik egin gabe. Tabernetan eta erakutsi izan du. Ikusgai jarri duen seriea lantzen hiruzpalau urte daramatza. Joandako industria-ondarearen egiturak. Lantegi zaharren egiturak, aurriak. Etsipen eta nostalgia begiratua. "Lana eta irabaziak sortutako lantegiak horma zahar bihurtuta. Irudipena daukat industria sareko aktoreen artean harreman gertuagokoak izatea bultzatzen zuten printzipioak ere suntsitu dituela globalizazioak".


Argazkiak egin eta estudioan landu: lehenik arkatzez bozeto modukoa egiten du argazkiko informazio guztia formatu txikian adierazteko. Ondoren, tamaina ertaineko mihisera pasa. Koadro gehienetan egunkarietako egindako collageak daude. "Nire obrarako erabiltzen ditut batzuetan egunkarietako titular batzuk. Testua eta margotzen dudana lotuta daude. Teknika mistoa erabiltzen dut". Gehienetan olioia, baina harekin jolasten du. «Gustatzen zait bitartekoen bateraezintasunarekin jolastea eta hainbat efektu sortzea. Likido asko botatzen dituzu eta haiek lehortu arte itxaron behar da lanean segitzeko. Sortzea asko luzatzen da baina teknika horrekin asko gozatzen dut».

Koadro bakoitzaren aldamenean arkatzez egindako bere bozetoa dago ikusgai. "Asko gustatzen zait. Asko baloratzen ditut arkatzez egindako lanak. Pixka bat utziak nituen. Kolorearekin eta beste margotzen hasten zara eta arkatza baztertzen duzu. Erakusketa honekin teknika hori berreskuratu dut eta asko gozatu dut bozetoak egiten".

Hiru alde behar dira hirukia osatzeko. Begoña Salazar Romo, Jose Mari Olmos Amillano eta Koldo Arnanz Zufiaurre. Lagunak. Hiru adierazpide: liburuak, eskultura eta pintura, hurrenez hurren. Markoa ere badugu: Altsasuko Iortia kultur gunea. Hirukia markoan, *Hiru keinu iraganari* erakusketa. Adierazpide bakoitzetik iraganera begirada. Hiru erakusketa bakarrean.

Erakusketa muntatzeko elkartu zirenean "hirurok gauzak atzera begiratuz lantzen ari ginela konturatu ginen. Hortik izenburua". Koldo Arnanz Zufiarreren azalpena da. Urte eta luzea eman dute erakusketa prestatzen. "Aurrera azkar egin dugu eta gure iraganetik zati bat galdu dugu. Atzera begira ari gara, baina logikoa denez aurreratu behar dugu. Gure asmoa beti aurrera joatea da. Horregatik, hirukia play moduko bat ere bada".

Ez dute erakusketarako propio sortu. Bakoitzak bere lana egiten segitu du, jakinik zein adierazpide lantzen zuen bakoitzak. Hiru adierazpideak markoan nahikoa ongi konbinatu dituztenaren sentipena dute sortzaileek.



Nonerabili

NUEVA IMAGEN

ALTSASU

%10eko deskontua edozein zerbitzutan.

ARRUAZUKO OSTATUA

ARRUAZU

Asteburuko menuarekin, kafea edo txupittoa doan.

LOGURE

ALTSASU

%20ko deskontua (eskaintza berezietan izan ezik).

MARIA LUISA

ALTSASU

100 €tik gorako erosketetan, 10€tako deskontu-bale bat hurrengoan erabiltzeko.

NEREA ILEAPAINDEGIA

LAKUNTZA

Garbitu, moztu eta apaindu 25 €.

MARTXUETA

IRURTZUN

%5eko deskontua irakurketako liburuetan.

MENDILORE

BAKAIKU

30 €ko erosketarengatik, landarea doan, %5eko deskontua lorontzietan.

LEKU ONA OSTATUA

ALTSASU

Egunekomenuan, kafea doan. Bestelako menuetan, %10eko deskontua.

REDIN LURRINDEGIA ETA KOSMETIKA

ALTSASU

%5eko deskontua osagarrietan.

LIZARDI ESTETIKA ZENTROA

ETXARRI ARANATZ

50€ko gastuarekin, %10eko deskontu-balea.

Festarako musika Larrazpin

Gaur, 22:30etik aurrera, kontzertuak eta bihar, 21:00etan Larrazpitek

Gaur lau talde igoko dira Larrazpiko eszenatokira: Akort (Gares), Demokrazia Zero (Zizur), Jarel Babel (Ororbia) eta Shock Waves (Altsasu). Bihar, berriz, Larrazpitek-en laugarren urteurrena ospatuko da. Musika jartzten ariko dira: Igor, Kirikol, Editer, David Dominguez, Krashtek, Aitor Fresan eta Eder Pardo.

CARNICERIA I. ARREGUI
HARATEGI ETA URDAITEGIA

tel. 948 576 067

Sakanako hiltegiaren hildako haragia

Etxeko obradorea:

- tripota
- tripotxa
- mihia
- kalluak
- saltxitxak
- frituak

Herriko plaza z/g LAKUNTZA

G

asteko >> : eguraldia

ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria: 73%	euria: 23%	euria: 93%	euria: 48%	euria: 60%	euria: 75%	euria: 78%
Min: 9 Max: 12	Min: 4 Max: 14	Min: 5 Max: 10	Min: 4 Max: 12	Min: 7 Max: 11	Min: 7 Max: 12	Min: 7 Max: 13

: temperatura >>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m ²
Irurtzun	21.5	5	102.2
Etxarri A.	21.8	4	80.9
Altsasu	22	4.5	65.4
Aralar	20	-0.6	61.9
Urbasa	-	-	-

: ilargiaren aldia >>

ilbehera	ilberri	ilgora	ilbete
14	22	29	6

EGOKI

VENTANAS PVC LEIHOAK

www.ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com

Acrylcolor

SISTEMA BERRIA

KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

Lastaileko

bazkide sarituak

- 1.- **Jose Luis Ulaiar Mendiola**
(Etxarri Aranatz)
- 2.- **Lurdes Mundiñano Gartzandia**
(Arbizu)
- 3.- **Javier Ollo Martinez**
(Altsasu)
- 4.- **Jaime Sanzol Ihabar**
(Altsasu)

AZAROKO SARIAK:

1. Ekainberri kobazulotarako 2 sarrera, Lacturale esnea eta yogurtak, Gaztezulo aldizkarian 3 hilabeteko harpidetza, Artaza kanpinerako deskontu balea eta Magana Navarra Xotarako 2 sarrera.

2. Artazako kanpinerako deskontu balea, Lacturale esnea eta yogurtak, eta Gaztezulo aldizkarian 3 hilabeteko harpidetza eta Magana Navarra Xotarako 2 sarrera.

3. Artazako kanpinerako deskontu balea, Lacturale esnea eta yogurtak, eta Gaztezulo aldizkarian 3 hilabeteko harpidetza eta Magana Navarra Xotarako 2 sarrera.

4. Artazako kanpinerako deskontu balea, Lacturale esnea eta yogurtak, eta Gaztezulo aldizkarian 3 hilabeteko harpidetza eta Magana Navarra Xotarako 2 sarrera.

>> 11

galdera

Josu Mendez eta Josune Azpiroz

Bocalan Biak Bat fundazioa

Testua: Larraitx Amadoz



Elkarrizketa osorik www.guaixe.net-en.

1. Zer da Bocalan Biak Bat?
Josu: Bocalan Biak Bat, Bocalan fundazioaren delegazio txiki bat da. Duela hiru urtesortu ginen hemengo gazteei zerbitzu bat emateko asmoarekin, batez ere behar bereziak dituzten pertsonendako. Era-kustaldiak egiten ditugu, formakuntza eta beste.

Josune: Gure helburua da gizarte-tik at geratzeko arriskuan dauden pertsonak edo behar bereziak dituztenen bizitzan laguntzea, batik bat integrazioan.

2. Nolako da zuen lan egun bat?
Josu: Asteazkenean zehar terapia eta ekin-tza ezberdinak jorratzen ditugu. Astearte eta ostegunetan Ilundain-go baserri eskolan aritzen gara lanean, bertako gazteekin. Bestalde, hitzaldiak ematen ditugu, eskolara bisitak egiten ditugu, gure egoitzara taldeak etortzen dira, formakuntza aritzen gara, eta txakur-aren prestakuntza egiten dugu.

Josune: Eusko Jaurlaritzak animalien eskuhartzean teknikaria deituriko ikastaroa sortu du eta homologatutako lehena da. Ostiralero Bil-borajotzen gara ikastaroa ematera.

3. Zer nolako formakuntza behar da honetan lan egiteko?
Josu: Gure taldea multidiziplinarra da. 3 psikologo dauzkagu, eta bakoitzak bere espezialitatea dauka, haur hezikuntza teknikariak ere bai. Bestalde, txakurrekin kontaktu gehiago dugunak gaude, nire kasuan, txakur hezitzailea naiz hainbat arlotan, gida txakurrak, laguntza txakurrak, defentsa eta segurtasun txakurrak, erreskatekoak. Talde honetako gehienak adituak ala teknikoak gara asistentzia animalietan.

4. Nola prestatzen dituzue txakurrak?
Josu: Erabiltzaile talde bakoitza ezberdina da eta horregatik txakur bakoitza behar horietara prestatu behar dugu. Horregatik hainbat txakur dauzkagu eta bakoitzak heziketa jakin bat jasotzen du.

5. Zenbat txakur daukazue?
Josu: Orain gurekin 8 txakurrekin egiten dute lan, batzuek terapietan eta beste batzuek erakustaldietan.

Josune: Baserri askotan beste animalia batzuekin lan egiten dugu, astoekin esate baterako.

6. Sakanan non aritzen zarete lanean?
Josu: Josefina Arregin aritu gara, 3 urte daramatzagu beraiekin kolaboratzen.

Josune: Behar bereziak dituzten 0-6 urte bitarteko Sakanako umeekin ere aritzen gara lanean.

7. Nafarroako Parlamentuan izan zarete berriki. Zergatik?
Josu: Orain arte Nafarroan ezezgoen laguntza txakurren inguruko legerik. Soilik 1995eko lege bat dago gida txakurren inguruko arauak biltzen dituen. Beste txakur eta erabiltzaileen inguruan hutsune handia dagoenez, lege honen aldaketa eskatu zen. Batez ere, animalia hauek defendatzeko eta eraikuntza publikoetan sartzeko babes emateko. Lege berri hau sortzeko lan mailan gaude.

8. Bocalan Biak Baten egoitza Altsasun daukazue baina eremu zabalean aritzen zarete, ezta?
Josu: Guk Euskal Herri osoan lan egiten dugu, baina Bocalan fundazioaren delegazio bat besterik ez

gara. Bocalan fundazioaren egoitza nagusia Madrilan dago eta horretaz gain, Katalunian eta Kantabrian ere delegazioak dauzkagu, gureaz gain. Nazioartean, berriz, Guatemala, Txile, Kolonbia, Mexiko, Argentina, Peru, Texas, Australia eta Japonian daude delegazioak.

9. Zerk piztu dizue lan honekiko interesa?
Josu: Nik betidanik izan ditut animaliak, txakurrak, zaldiak, ardiak, denetarik. Josune psikologoa izanda eta animaliek daukaten berezitasun hori ere aprobetxatuz, horri buelta eman eta zerbait egin behar genuela bururatu zitzaigun.

10. Zer nolako harrera izan du zuen lanak?
Josune: Orain arte gure lana zabaldu nahi izan dugu jendeak ezagutu dezan. Beste laguntza mota batzuk daudela azaldu, beste terapia batzuk, eta honen gainean esan emaitza oso onak ematen ari direla. Erein egin dugun guztia jasotzen ari gara; leku askotatik deitzen gaituzte terapia eta erakustaldiak egiteko.

11. Krisiak gogor jo du?
Josu: Arlo honetan oso-oso gogor jo du. Lan egiten dugun pertsonen normalean oso behar bereziak izaten dituzte eta murrizketak oso gogorrak izan dira beraiantzat. Elkarte askorik laguntzak kendu dizkiete. Askotan lau egun lan egiten dituzu eta bat ordaintzen dizute.

Josune: Norbaitek interesa duenean bidea lortzen dugu dirua ahal den neurrian ateratzeko. Ospakizunak egiten ditugu; berriki Barañaingo Auditoriumean izan ginen terapia bataurrera eramateko diru lortzen.

Eguberri

postalen eskaintza

Urte berri on!

Usain gozoko postalak, bi orrikoak, orri bakarrekoak... Hainbat aukera!

Zorionak eta urte berri on!

Guaixe

KOMUNIKAZIOA

948 564 275 argi@guaixe.net